

Zu hemen zaude. goiena



ORTU KOMUNITARIOETAN JORRAN HASTEKO GERTU

Jorran dute izena Bergarako ortu komunitarioek; eremuak 91 lursail ditu, eta 75 esleitu ditu Udalak. Erabiltzaileek lehen ikastaroak jaso dituzte, lurra jorratzen hasteko / 28

Begarako ortu komunitarioetan ibiliko diren erabiltzaile batzuk, ikastaroan azalpenak entzuten, joan den zapatuan. IMANOL SORIANO

Nazioarteko Txotxongiloen XVI. Mostra asteburuan Bergaran

Kataluniako, Uruguaiako, Argentinako eta Mexikoko artistak batu ditu Taun Taun Teatroak, kaleko eta aretoko ikuskizunetan / 33



Osoko bilkuren aretoan izango den *Tinglaua* txotxongilo erakusketa prestatzen, bart. XABIER URZELAI



ETXEBIZITZA ETA
ERAIKUNTZA GEHIGARRIA / 15

SINADURAK

 MIKEL ARREGI ASKASIBAR / 6	 MIEL GURI / 30
 MARIA IZAGA / 11	 MARIA AGIRRE / 40

**Bi aste barru hasiko
den Euskaraldirako
indarrak batu dituzte
Debagoieneko
koordinatzaileek / 3**

 100 urte bete dira Emakume Abertzale Batza sortu zela

 Txani Rodriguez idazleari elkarrizketa

**BLACK //
FRIDAY**

2MÓ 79€
MONOFOKALAK

ETA ASKOZ GEHIAGO...



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Otalora Lizenziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA


www.multipopticas.com

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

Ulma Taldea batzarrak egiten hasi da langileekin

Mondragon korporazioak kongresua egingo du hilaren 15ean, baina Ulma Taldeko organoak ez daude ados egingo duten proposamenarekin, eta, beraz, bilerak egiten dabilta beharginekin. Mahai gainean egon daiteke Mondragonetik irtetea

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

Ulma Taldea batzarrak egiten hasi da lan-bazkideekin, Mondragon korporazioarekin dituen desadostasunak tarteko, eta egotez hausnartzeko. Izan ere, Mondragonek kongresua deitu du azaroaren 15erako, eta, Ulmak langileei bidalitako ohar baten arabera, "aldaketa garrantzitsuak dituen ponentzia bat" onartzea proposatuko du, Ulma Taldeko organoen "kontrako balorazioa" jaso duena. Beraz, jakinarazi dutenez, Zuzendaritza Kontseiluko zein Kontseilu Orokorreko negozio guztietako ordezkariak "aho batez" adostu dute bi erakundeentzako "irtenbide iraunkor eta positiboa" bilatzen duen proposamena, "Ulmaren nortasuna babestu eta kooperatiba-mugimendua indartzen" duena, eta aukeretako bat da korporaziotik irtetea.

Hala, horren berri emateko, besteak beste, mantenu zerbitzuetakoekin bildu ziren eguaztenean. Hilaren 7an eta 9an, berriz, Ulma Packaging-ekoekin batuko dira, eta eguaztenean bertan elkartuko dira Ulma Advanced Forged Solutions osatzen dutenekin ere. Are gehiago, gai-nontzeko sei negozioetako langileekin ere bilduko dira, data



Ulma Taldeko egoitza zentrala, Oñatin. GOIENA

zehazteke dagoen arren: Ulma Architectural Solutions, Ulma Conveyor Componets, Ulma Agrícola, Ulma Construction, Ulma Handling Systemns eta Ulma Embedded Solutions. Dena den, ez da jakinikoa zer azaldu duten batzar horietan, Ulmatik, behintzat, ez baitute galderarik erantzun. Abenduan egingo dute bozketa, taldeko kooperatibista guztiek, azken erabakia hartzeko.

Lehenago ere mugimenduak

Alabaina, Ulma Taldeak oharrean aitortu du hau ez dela Mondra-

gon korporazioarekin ados ez dagoen lehen aldia, baizik eta desadostasun horien "beste adibide bat" dela. Ulma sortuz geroztik hainbat izan baitira izan dituzten kezkek.

Hain justu, 1950eko hamarkadaren amaieran eman zituen lehen pausoak egun Ulma Taldea denak. Sei gazte aritu ziren horretan, eta 1961ean lehen kooperatiba sortu zuten. Negozioa hazi egin zen, ordea, eta beste sektore batzuetan lanean hasi ziren. Bitartean, bailaran beste negozio batzuk zabalitzen zebil-

tzan paraleloki, kooperatibak ere sortuz, eta, 1990eko hamarkadaren hasieran, negozio horietako batzuek irudi korporatibo berria eta bakarra edukitzea erabaki zuten.

1993an, Mondragon korporazioaren antolaketa egituraren sartzeko aukera izan zuen -MCC zen garai haietan-, baina, kooperatiba talde propioa edukitzea erabakiaren ondorioz, eze-koaren alde egin zuten. Hala ere, 2002an, Ulmako bazkideek onartu egin zuten Mondragonen industria dibisioan sartzea.

Aurrez ere desadostasunak

2016ko uztailan eginiko kongresuaz geroztik, ordea, desadostasunak dira nagusi korporazioarekin. Besteak beste, Fagor Etxetresnak-en aferak kolokan jarri zituen Mondragoneko zutabeak, eta, korporazioaren geroa zuzendu nahian, eredu berri bat jarri zen mahai gainean kongresuan: hain justu, arazoak zituzten kooperatibei lagundu bai, baina "kontrol zorrotza" ezarrita, eta, aldi berean, laguntzak emateko eta enpresa ekimen berriak sustatzeko funts bat sortuta, EITBk emandako informazioaren arabera.

Baina Ulma ez zen bat etorri hasieratik, eta, harrezkero, malgutasuna izan du ekarpenak egiterakoan, aski izan ez bada ere, taldetik irtetea erabaki dezakeelako, Oronarekin batera, eta aurrez Ampok eta Irizarrek egin bezala.

ABENDUAN EGINGO DUTE BOZKETA TALDEKO KOOPERATIBISTEK, ERABAKIA HARTZEKO

BNI Aukera Debagoiena: 5 urte negoziokoak sortzen

Bosgarren urteurrena ospatzeko ekitaldia antolatu dute azaroaren 11rako Garaia Parkean

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

BNI Aukera Debagoienak 5 urte betetzen ditu aurten, eta ekitaldi berezia antolatu du, hori ospatzeko, Garaia Parke Teknologikoan, azaroaren 11rako, 13:00etan. *Sare iraunkorrak eraikitzen* izenburua jarri diote ekitaldiari eta bertan, besteak beste, hiru erakundetako hizlari bana izango da: Elena Herrarte D2030 Plataformako koordinatzaile orokorrak "enpresen atxikimendurako" proposamenen gainean jardungo du; Aritz Otxandiano Fagor Taldeko presidente eta iraunkortasun arduradunak, berriz, *Enpresak iraunkortasunerantz* izenburuko berbaldia egingo du; eta Jokin Umerez Ternua Groupeko zuzendari nagusiak, azkenik, *Change priorities* izenburuko. Mondragon Unibertsitateko Diseinu Berrikuntza Zentroko kideek, bestalde, HCD Facility Tool proiektuari buruz jardungo dute.

Une honetan, BNI Aukera Debagoiena sarea osatzen dute eskualdeko 25 enpresak. Bost urte hauetan 240 batzar antolatu dituzte hainbat enpresatako kideekin, eta 3.671.261 euroko negoziokoak sortu dira, 3.285 erreferentzia edo negozio aukeraren bidez.

bertako
igogailuak | ascensores

-REKIN BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450
BIZKAIA
946 523 935
ARABA
945 712 822
NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus

Ariketa hasteko bi aste falta dira: "Adi egon!"

Bailarako herrietako Euskaraldiaren koordinatzaileek "indarrak bateratzeko bilera" egin dute, toki bakoitza ze puntutan dagoen eta datozen egunetarako zer prestatu duten ikusteko. Norbanakoen izen-emateari beste martxa bat sartu nahi diote

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Hemendik hamalau egunera, azaroaren 18an hasiko da Euskaraldiaren hirugarren aldia. Egun hori iritsi aurretik ekitaldi ugari antolatuko dituzte Debagoiengan, norbanakoei ariketa sozialean parte hartzeko mezua ahalik eta gehien hedatze aldera. Batzordeek areagotu egin dituzte herriz herri izen-emate mahaiak, baina, Ikuska Lizarralde Arrasateko koordinatzaileak adierazitakoa aintzat hartuta, nahi baino motelago ari dira zerrenda osatzen: "Aurreko aldietan bezala, ziurrenik, azken orduan emango dute izena askok, baina guri lana erraztuko liguke lehenbailehen emateak".

Aktibazio hori suspertzeko, "ekintza nahikotxo" plazaratuko dituzte datozen egunetan. Beraz, sare sozialei eta komunikabideei "adi" egoteko eskatu die Lizarralde *ahobizi* zein *belarriprest* rola hartuko dutenei. Epe motzera begira, Oñatiko plazan Hitzez Ekiteko ekitaldia egingo dute zapatuan, 13:00etatik aurrera, zuzeneko musika, dantza, poesia errezitaldia eta hainbat herritarren testigantzak tarteko. Bestalde, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako batzordeek ibilaldi bateratua egingo dute Gatz Bidean (Ikus 12.orria).

Gune ibiltaria

Euskaraldiaren batzorde nazionalak beste egitasmo bat proposatu du datozen egunetarako: "Furgoneta koloretsu batek zeharkatuko ditu herriak, karpa bat erakutsiz; izen-emate mahai ikusgarri bat izango da". Gune ibiltari bezala definitu dute, eta azaroaren 11n Eskoriatzatik pasako da goizean eta Arrasateetik arratsaldean. Bertan, Arrasate Musikalekoen doinuek giroa, hausnartzeko aukera ere emango die gune ibiltariak: "Eskatuko diegu euskarri batzuetan aurten euren buruei jarriko dieten erroka idazteko, *Zer lortu nahi dut?* galderari erantzunda". Euskarri horiek Zerrajeran marraztuko duten murala osatzeko erabiliko dituzte gero.

"Eskerrik asko entitateei"

Kaleko izen-emate mahaietan norbanakoei rola identifikatzeko txapak banatzen hasiak dira dagoeneko. Ariguneak osatuko dituzten entitateek, komertzio txikiek eta enpresek, berriz, laster jasoko dituzte euren identifikatzaileak. Haiei eskerrak eman dizkiete koordinatzaileek, eta gogoratu dute batzordeak irekita daudela lagundu nahi duen pertsona ororentzat.

TicketBAI sistema indarrean jarri dute komertzio txikietan

Gipuzkoako negozio guztiak Ogasunarekin 2023ko ekainerako modu digitalean konektatzeko prozesuak beste urrats bat egin du asteon, jada derrigorrezkoa baitute denda, taberna zein jatetxeek ere neurri berria betetzea. Gaur-gaurkoz, Gipuzkoan erregistratuta dauden 10.000 komertzio txikietatik erdiek baino ez daukate TicketBAI ins-

talatuta. Izan ere, autonomoen aldetik protesta ugari sortu ditu Ogasunari iruzur egitea saihesteko sistemak. Besteak beste, ekipamendua euren poltsikoeetatik ordaindu behar izan dutela argudiatu dute, "2.000 eurotik gora" inbertituta.

Gauzak horrela, TicketBAI duten komertzioetan erosteraoan, kontsumitzaileak QR bat jasoko du tiketean, eta hura eskaneatuta egiaztatu ahalko du Ogasunak erosketari lotuta jaso duen informazioa.



Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Bergarako koordinatzaileak. IKUSKA LIZARRALDE




Mundialerako gogoia dago!

Hilaren 4an, ostirala, eta 5ean, larunbata

BEZa*

oparituko dizugu elektronikan eta etxetresnetan.

* EROSKI club-eko bazkidea bazara. Euskadiko, Nafarroako, Kantabriako eta Ertzeakako EROSKI Hipermerkatuetan zure EROSKI club txartelean sartuko dizugu sustopenari ofizialki onaren BEZaren baliokidea den zenbatekoa. EROSKI club txartelean gehienez 250 € sartu ahal izango dira. Kontsultatu gainerako baldintzak zure ohiko dendan. Supermercado.eroski.es/eu/-en ere bai.



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

Udalen neurriak, energia prezioen gorakadagatik

Energia aurrezteko eta faktura energetikoa murrizteko neurriak lantzen eta hartzen hasi dira Debagoieneko udalak; aldaketa gehienak argiteria publikoan egin dituzte eta Gabonetako argietan ere murrizketak egongo dira, batik bat, datei dagokienez

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Energiaren prezioa gora eta gora doan garai hauean, Debagoieneko hainbat herritan energia berriztagarriak sustatzeko hainbat bilera egin dituzte. Abuztuan, berriz, Ministroen Kontseiluak energiaren aurrezpenerako Errege Dekretua onartu zuen, eta hainbat neurri ezarri.

Erabakiak hartzen hasita

Debagoieneko udalak hasi dira egungo egoerari aurre egiteko neurriak lantzen eta hartzen. Eskoriatzan eta Arrasaten hartu beharreko neurriak erabakitzeko lanean ari dira; Arrasateko Udalak hilaren 10ean egingo du prentsaurrekoa, hartuko dituzten erabakien berri emateko asmoarekin.

Aretxabaletan energia murrizteko neurriak lantzen ari dira. Hala ere, herriko argiterian inbertsioak egin dituzte azken urteetan, eta Unai Elkoro alkateak baieztatu du duela sei urte baino diru gutxiago gastatzen dutela, nahiz eta garestiago egon.

Bergaran irailean ezarritako neurriak betetzeko egokitzen ari dira, gasaren igoera dela eta. Oraingoan, ez dituzte berogailu sistemak piztu, beharrik ez dutelako izan: "Pizten direnean, ezarritako tenperatura horretara



Gabonetako eta ohiko argiteria Arrasateko Herriko Plazan. GOIENA

ra mugatuta egoteaz gain, erabilera denborak ere zorrotzago aztertuta jarriko dira martxan, arratsaldean erabilera urria duten eraikinetako berokuntza sistemak goizeko ordutegian soilik piztuz, edo alderantziz".

Oñatiko Udalak joan den astean aurkeztu zuen zortzi esku-hartze biltzen dituen Energia Plana; Iزارo Elorza alkatearen hitzetan: "Egoerak erantzun beharra exijitzen duelako eta aurrera begira izango ditugun etorkizuneko erronkei heldu beharra dugulako". Besteak beste, jasotzen ditu

argindarraren merkatuko espekulazioak herritarrengan ahalik eta inpaktu txikiena izatea, energia zein gasaren fakturak irakurtzen laguntzeko aholkularitza bulegoa zabaltzea eta argindar sorkuntza berriak martxan jartzea.

Antzuolan eraikin publiko guztiak –gimnasioa eta pilotalekua izan ezik– energia elektriko hornitzeko plaka fotovoltaiakoak jarri zituzten iaz pilotalekuko eta eskolako teilatuetan. Beñardo Kortabarria alkatearen hitzetan: "2021eko azaroan amai-

tu genituen lanak, Iberdrolarekin izapideetan aritu gara, eta badirudi joan den astean eman zigutela konektatzeko aukera". Bestalde, herriko argiteria aldatzeko dirulaguntza eskatuko dute, eta herria hornitzeko era aldatu nahi dute: "Propano depositua daukagu. Gasbidera konektatu nahi dugu, baina, horretarako, bidegorriko obra amaitu behar da".

Elgetan zaharkitutako gasezko galdarak ordezkatu dituzte. Duela bi urtetik, plaka fotovoltaiakoak dituzte udaletxea hornitzeko, baina aurten, frontoian gehiago jarri dituzte udal eraikin guztiei argindarra emateko, "baita beharizan bereziak dituzten hamar familiari ere". Kaleko argiteria "aspaldi" ordezkatu zuten LED argiekin, eta "%60tik gorako aurrezpena lortu".

Aramaion energia aurrezteko neurriak duela urte batzuetatik ari dira hartzen, "progresiboki", LED argiak jartzen joan baitira faroletan, eraikinen azterketa energetikoa egin dute, eta, "horren arabera, plan bat diseinatu da. Horretaz gain, eraikin publikoetako auto kontsumo proiektua laster lehiaketara ateratzeko asmoa daukagu".

Leintz Gatzagan, berriz, hartu beharreko neurriak aztertzen ari dira. Joan den urtean argiteria aldatu zuten han ere, eta LEDak jarri, eta Jon Sasiain Hirigintza zinegotziak dio horri esker kontsumoa murriztu eta %80 aurreztu dutela fakturan.

Kiroldegietan neurri bateratua

Halaber, udalerrriak kirol instalazioetako kasuak aztertzen ari dira neurri bateratuak hartzeko, gastuak handiak baitira. Aretxabaletako kasua da adibide: "Herrian 1.600 farol ditugu. Ho-

rien urte osoko kontsumoaren bikoitza kontsumitzen du kiroldegia bakarrik elektrizitatean".

Bergaran ere, kiroldegien kasuan, duela urte batzuetatik ari dira gasaren kontsumoa murrizteko neurriak hartzen eta aztertzen, kontsumo handienak dituen eraikina baita: "Tenperatura kontrolatu eta moldatzeaz gain, aukera ezberdinak aztertzen gabiltza, teilatuan dauden eguzki-plaka termikoak osatzeko".

Gabonetako argiak

Hilabete pasa falta bada ere, Gabonetako argiteriaren gaia jarri dute mahai gainean udalak, eta badaude aldaketak.

Bergaran eta Eskoriatzan egun gutxiagotan egongo dira piztuta argiak. Bergaran argiteria kopurua mantendu egingo da, baina abenduaren 12tik urtarrilaren 6ra egongo dira piztuta, 18:00etatik 21:30era. Eskoriatzan, aldiz, 15ean piztuko dituzte eta urtarrilaren 6an itzali. Aurten ez dute plazan zuhaitzik jarriko, kontsumo handiena horko argiteriak duela ikusita. Ordutegia ez da murriztuko, argiak argiteria publikora konektatuta daudelako.

Antzuolan, adibidez, ohiko LED zintak jarriko dituzte. Abenduaren 19ko astean piztea daukate aurreikusita, Errege osterarte. Elgetan, berriz, urtero jartzen duten LED tira piztuko dute abenduaren 21 ingurutik urtarrilaren 7ra.

Aretxabaletan, Aramaion eta Gatzagan ez dago aldaketarik.

UDALAK KIROLDEGIEN ENERGIA KONTSUMOA AZTERTZEN ARI DIRA NEURRI BATERATUAK HARTZEKO



HITZETZ EKITEKO GARAIA

EMAN IZENA!
euskaraldia.eus

"Euskarak lan esparruan bere tokia behar du. Horregatik Euskaraldian bost arigune sortuko ditugu".


Nerea Ortiz




2022ko AZARAREN 18tik
ABENDUAREN 2tik



Francisco Astuy. GOIENA



Iñaki Agiriano. GOIENA



Matilde Martin. GOIENA



Alaitz Perez de Arenaza. GOIENA

Sufritu dutenen ahotsei tarte berezia Goienan

Motibazio politikoko indarkeriaren ondorioak jasandako lau pertsonaren lekukotzak jaso eta datorren asteko astelehenetik eguenera emango ditu telebistan –ondoren, sarean–; saio bat izango da eguneko, eta Memoriaren Egunean amaituko da sorta

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Angel Astuy 1980ko otsailaren 8an erail zuen ETAk Oñatin egindako atentatu batean; herriko udaltzaina zen. Victoriano Agiriano eta Maria Angeles Barandiaran senar-emazte beragararrak polizia kontrol batean hil zituzten Gasteizen, 1982ko urriaren 16an. Xabier Perez de Arenaza arrasatearra 1984ko

martxoaren 23an erail zuen GALek Miarrizten; errefuxiatuta bizi zen Iparraldean. Matilde Martin arrasatearra PSE-EEko zinegotzi izan zen 1999 eta 2007 artean; ETaren mehatxu-gutuna jaso zuten hark eta kideek 2000. urtean, eta bizkartzainarekin bizi izan zen luzaroan.

Guztiek jasan zuten motibazio politikoko indarkeria, eta bai

ta familiek ere haren ondorioak; aita hil zieten Francisco Astuyri eta Alaitz Perez de Arenazari, eta gurasoak Iñaki Agirionori; hiruren eta Matilde Martinen beraren ahotsak jaso ditu Goienak Memoriaren Eguna ospatzen den astean –azaroren 10ean da– telebistan emango duen erreportaje sortan: *Biktimen ahotsak*, astelehenetik

egunera, 21:00etan eta 23:00etan –goi-goiko hurrenkeran izango dira–.

Eduki eta modu berriak

Elkarrizketatuek ez zuten aurrez euren testigantza maiz emana –harentzat "urratsa" izan dela ere aitortu du bateren batek–, Goienaren gonbidapenari erantzutea erabaki dute orain. Goienak ere ez zuen gaurdaino halakorik egin, edukien zuzendari Eneko Azkaratek azaldu duenez: "Uste dut zor bat bage-neukala alor honetan. Ez dut esango gatazkari buruzko edukiak sortu eta argitaratu ez ditugunik eta horietan biktimen ahotsik jaso ez dugunik, baina propio biktimei eskainitako tarte berezirik, testuinguru jakin baten sortuta, zabal kontatuta, ez dugu egin. Lehen aldia izan

da halakorik egin duguna. Beharrezkoa zen eta egin dugu".

Eta egiteko modua ere berezia izan da oraingo honetan: "Ez da kazetaritza sail arrunt edo soil. Ikerketa-lana ere egon da. Eta aholkularitza ere jaso dugu, ez bakarrik iturriak identifikatzeko, baizik eta baita hiztegia sortzeko ere, gauza bakoitzari nola deitu behar zaion ikasteko... Prozesu aberatsa izan da, kazetari eta teknikariak parte izan dituen, Berbari Lekua aholkularitza profesionalen eskutik –Aitziber Blanco...–".

ETA-REN, GAL-EN ETA POLIZIAREN INDARKERIAREN ONDORIOAK JASANDAKOAK DIRA

BILBORAI!

17:30
azarroak 12. La Casilla

Euskal olatua

GELDI EZINA

ehbildu

Abante!

ANTZUOLA
Aitz Garbi tabernan

ARETXABALETA
Urbaltz tabernan

ARRASATE
Irati eta Taupa tabernetan

BERGARA
Arrano eta PoiPol tabernetan

ELGETA
Haizea tabernan

ESKORIATZA
Inkernu tabernan

OÑATI
Arrano tabernan

Eman izena autobusean!



ZABALIK

MIKEL ARREGI ASKASIBAR

Whatsapp

Egun guztiek dute sorpresaren bat. Astearte goiza, gosaldur berri, eguneko lehenengo zuzeneko egin zain, mundua gelditu geratu da, bare-bare. Mugikorra lo dago, isilik, ezer jaso gabe. Minutu gutxira hasi da berriz bibratzen, baina ez *whatsapp*-ak iristen hasi direlako, ez, *telegram*-ak heldu eta heldu ari direlako baizik. "Whatsapp erori da", dio lankide batek, eta, berehala, lanerako erabili ohi ditugun taldeak Telegramen agertzen hasi dira. Minutu gutxian, aplikazioz aldatuta hori bai, normaltasuna bueltan da.

Whatsappik gabeko minutu gutxi horiek, baina, zer pentsa eman didate: batetik, sentsazioa daukat mundutik kanpo izan naizela momentu batez, bakarrik, inorekin hartu-emanik izan gabe; bestetik, lehen ezinegon horren ostean, bake handia sentitu dut. Horrenbestekoa da Whatsapp erabiltzaile askok sarritan sentitzen dugun antsietatea, berau erorita bizitza berak zentzua gal dezake.

Bada, esajerazio handia izan daiteke esandakoa. Edo ez? Inguruan gero eta gehiago dira mugikorrek eta sare sozialek ezinegon sakona sortzen dietela esaten dutenak. Zenbait ikerketaren arabera, egunean ia bost ordu pasatzen ditugu mugikorrari begira, dela Whatsapp-ekin hitz egiteko, Twitterreko azken polemikari adi egoteko edo Instagramen ezagutu berri duzun horren bizitzaren berri izateko.

Lehen pertsona hitz egitea tokatzen dela uste dut, zoritxarrez, gaur egun oso gutxi baitira mugikorraren diktaturatik kanpo bizitzeko indarra dutenak. Doala beraiantzat nire mihaspenik handiena!

Evgeny Morozov idazle eta ikerlari bielorrusiarrak dio kanpoko estimuluaren menpe bizi den pertsona batek bere identitatea galtzen duela, nortasunik gabe geratzeraino. Haren ustetan, Internetek laburtu egin du ekintza baten eta honen erantzunaren arteko denbora, eta horrek eraginak uzten ditu gure burmuinean. Berehalako satisfazio baten beharra dugu, eta, hori iristen ez bada, antsietatea sortzen da.

Begi-bistakoa da, beraz, mugikorraren esklabo garelako, informazioaren jonki. Eta tendentzia honek okerrera egingo duen susmoa daukat. Ikusiko dugu.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Arizmendi Ikastola, eskerrik asko!

ITSASO NUIN

RETINA GIPUZKOA BEGISAREKO
LEHENDAKARIA
DEBAGOIENA

Urriaren 21ean, Arizmendi Ikastolak *Ikus nazazu* proiektua amaitu zuen, Arrasateko eta Aretxabaletako kaleetan egin zuten ekintza batekin.

Astelehenera lanean ibili ondoren, lana kaleratzeko unea heldu zen, eta bi herri horietan mahaia jarri zituzten.

Jendeak aukera izan zuen ikusmen murriztuari buruz informazioa jasotzeko eta ikusmen murriztua zer den

hobeto ulertzeko, betaurreko birtualen bitartez.

Retina Gipuzkoa Begisareko ordezkari bezala, Arizmendi Ikastolari eskerrak eman nahi dizkiogu, gure arazoa gizarteratzen laguntzeagatik. Hori da gure helburu nagusienetako bat, erakustea ikusmen arazoak ditugula, nahiz eta gure begiek itxura ona izan, eta zenbait egoeratan oso zaila egiten zaigula moldatzea. Arizmendik antolatutako *Ikus nazazu* jarduerak kaleratu egin dute gure egoera, eta zenbait pertsonak hobeto ulertuko dute gure egoera.

Beraz, mila esker, eta espero dugu elkarlanean jarraitzea.

Eskerrik asko, Mikel!

BEATRIZ UGARTE GARITONANDIA
ARANTZAZUKO MILIKUENKUEUEN IZENIAN OÑATI

Bixar ez zara etorriko zure ogixakin Arantzazura; hurrengo arrain zopa egiten dogunian, faltan botako ditugu zuen pistolak; Erregetan rosakoa, gero karapaixua eta abar, eta abar.

Gauza asko galdu ditugu gaur, eta guk eskerrak emutia pentsatu dogu, denbora askuan egin dozun lanagatik eta horren ondo zaindu gaituzulako.

Eskerrik asko danagatik, Mikel!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura),
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publikizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIKIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

D2030: ELKARRIZKETA



Ander Zangitu, Berener kooperatibaren aurkezpenaren. THE BADASS PROJECT

"Dependentzia energetikoa amaitzeko bidea izango da Berener kooperatiba"

ANDER ZANGITU ORBEA BERENER KOOPERATIBAKO KIDEA

Sortu da Berener, Bergarako Energia Berriztagarrien Komunitatea. Bergaran trantsizio energetikoa bultzatzeko tresna izango da kooperatiba berria

Miren Arregi BERGARA

Ehunduk eta Bergarako Udalak bultzatuta, Goienarrekin, Emunekin eta enpresarekin burututako prozesu baten ondorio da Berener, Bergarako Energia Berriztagarrien Komunitatea. Energia burujabetzarantz urratsak egiteko tresna izango da, bergararren bizitzak hobetzeko helburua izango duena.

Zer da Berener?

Bergarako Energia Berriztagarrien Komunitatea da; energia berriztagarriak ekoiztea, autokontsumo partekatua sustatzea eta energia kontsumoa murriztea

helburu dituen kooperatiba herritarra. Energia burujabetzara bidean proiektu desberdinak bultzatu gura ditugu Bergaran, eta hori ahalbidetuko du Berener kooperatibak. Modu honetan, bergararrok energia eskuragarri izango dugu eta dependentzia energetikoa amaitzeko pausoak emango ditugu.

Nolako onurak ekarriko dizkie herritarrei?

Lehenengoa, ingurumenekoa, %100 berriztagarriak diren energiak planteatuko baitira. Bestetik, ekonomikoak. Gure etxeetako, komertzioetako eta enpresetako fakturak murriztuko baitira. Gainera,

inklusiboa ere izango da, baliabide energetikoak denon eskura ipintzea baita helburua.

Zein berezitasun izango ditu kooperatibak?

Irabazi asmorik gabekoa izango da, eta, herritarren behar komun bati erantzuteko proiektu kolektiboa izango denez, irabaziak etorkizunean sortuko diren beste proiektu batzuetan erabiliko dira. Bazkide erabiltzaileak, lan bazkideak eta bazkide laguntzaileak izango ditu kooperatibak. Alet, Bergarako Udala eta Fagor Taldea prest agertu dira bazkide laguntzaile izateko.

Zein proiektu duzue dagoeneko martxan?

Lehenengo proiektua San Martin eskolan jarriko da. Autokontsumo partekatuko proiektu bat izango da. Bertako teiltuan jarriko dira elektrizitatea sortuko duten plaka fotovoltaikoak. Instalazio horrek sortzen duen energiaren %70 kooperatibako erabiltzaileendako izango da, %20 San Martin eskolarendako eta %10 familia zaurgarriendako.

Zenbat erabiltzaileendako izango da?

100 kilowatt izango ditu instalazioak, eta ehun bat erabiltzaile; etxebizitzak, komertzioak edo elkarteak. Gehienez kilometro bateko distantziara dauden eraikinak baliatuko dira instalazio horretaz.

Nork bere etxean aldaketarik egin beharko du?

Guk proposatzen dugun eredu ez da inolako aldaketarik egin behar. Merkaturatzaile enpresa berarekin jarrai dezakegu eta sortutako energiaren zenbatekoa zuzenean deskontatuko da fakturan, kontratua zeinekin dugun axola gabe.

Berenerko bazkide eginda zuzenean egiten da bat San Martingo proiektuko erabiltzaile?

Ez. Edozein izan daiteke Berenerko bazkide, nahiz eta une honetan proiektu horretako erabiltzaile ezingo den izan edozein. Izan ere, proiektu horretako erabiltzaileak egon beharko du San Martin ikastetxetik kilometro bateko distantziara, asko jota. Hala ere, Labegarietako bizilagun bat ere izan daiteke Berener kooperatibako bazkide, nahiz eta ez sartu kilometro bateko muga horretan. Bazkide horiek onura batzuk izango dituzte kooperatibako bazkide izate hutsagatik, eta, gainera, pentsatu behar dugu bazkide horrek ahalbidetu dezakeela finantzaketa iturria, etorkizunean Labegarietan bertan horrelako proiektu bat gauzatu ahal izateko. Zein puntutan dago une honetan kooperatiba?

Eratzekotan dago. Eta orain, bazkide eta kanpainarekin gaude buru-belarri. Norbanakoendako 100 eurokoa izango da bazkide eta denda, enpresa eta horrelakoendako, 200 eurokoa. Gero, zuzeneko erabiltzaile edo onuradun izango direnek ordainduko dute San Martingo instalazioa bera. Hau da, ez da bazkide diren guztien artean ordainduko instalazioa. Onuradunek eta kooperatibak egingo dute hori eta orain hori definitzen gabilta.

Hasi da jendea interesa azaltzen?

Bazkide eta kanpaina hasi dugu eta dagoeneko hasi da jendea izena ematen, bai. Orain, jarraituko dugu kooperatiba aurkezten.

Esaterako, auzoetara joango gara hitzaldiak egitera. Zein beste proiektu duzue esku artean?

Energia aholkularitza emango da Mizpildiko bulegotik, gure egunerokotasuna aldatzeko informazioa beharrezkoa baita. Bestetik, beste proiektu batzuk martxan jartzeko herritarrekin eta enpresekin lanean jarriko gara, uste dugulako beste auzo batzuetan ere abiatu daitezkeela horrelakoak. Gure nahia litzateke hamar urteren bueltan zazpi proiektu egotea herrian martxan.

Enpresetako teiltuak ere energia sortzeko erabiltzea aurreikusten duzue?

Fagor Taldeak proposatu du badagoela aukera beren teiltuak erabiltzeko Energia Berriztagarrien Komunitatearen onurarako. Energia burujabetzaren bidean enpresa, udal... teiltuak beharko ditugu.

"AUTOKONTSUMO PARTEKATUKO PROIEKTU BAT IZANGO DA EGINGO DEN LEHEN URRATSA"

"HERRITARREI EKARRIKO DIZKIEN ONURAK IZANGO DIRA INGURUMENEKOAK ETA EKONOMIKOAK"



Udalan ordezkaturtuta dauden lau alderdietako ordezkariak, Herriko Plazan. X.U.

Memoriaren Egunean, Agurtzane Arregi gogoan

Memoriaren Egunen baitan, 1978ko uztailaren 2an tiroz hil zuten Agurtzane Arregi Letamendi arrasatearrari aitortza egingo dio Arrasateko Udalak azaroaren 10ean, eguna, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Ekitaldi publikoa izango da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arregi Letamendiren gaineko informazioa jasota dago *Memoria partekatuta baterantz. 1956-2018 Arrasate-Mondragon* liburuan. Hala, jakina da arrasatearrak arropa-denda batean egiten zuela lan, Urruñan. 38 urte zituen, eta hiru seme-alaba, 13, 11 eta 9 urtekoak. Senarrak, Juan Jose Etxabe Orobengoak, jatetxe bat zeukan Donibane Lohizunen, eta hainbat atentatu egin zizkioten han, ETako kide izan zela eta. Horietako bat izan zen, hain zuzen, AAA taldeak egin dakoa (Komunismoaren Aurkako Aliantza Apostolikoa). 1978ko uztailaren 2ko gaua zen, eta auto barruan zeudela egin zieten tiro senar-emazteei; Agurtzane Arregi erail -17 tirok jo zuten- eta Juan Jose Etxabe larri zauritu zuten -18 tiro zituen-.

Azpimarratzekoa da biak zirela AAA taldearen helburu. Izan ere, senarrak 10 minutu inguru zeramatzan autoaren barruan, emazteak lana noiz bukatu zain. AAako kideek, baina, ez zuten tiro egin biak auto barruan egon zirenera arte.

Biktima gisa lehen onarpena

Handik bost egunera, uztailaren 7an, ekarri ahal izan zuten



Agurtzane Arregi. UDALA

Urruñan bizi zen arrasatearra

Agurtzane Arregi Letamendi arrasatearra zen izatez, baina Lapurdiko Urruña herrian bizi zen, senar Juan Jose Etxaberekin eta hiru seme-alabekin. Erail zutenean 38 urte zituen eta seme-alabek, berriz, 13, 11 eta 9 urte.

senideek gorpua Arrasatera, eta milaka pertsona joan ziren San Juan Bataiatzailearen elizara egin zen hileta-elizkizunera. "Oraingo, familiak ez du izan ez egirik, ez Estatuaren aitortza ofizialik, ez indemni-zaziorik, ez justiziarik. Biktima bezala lehenengo onarpen ofiziala Eusko Jaurlaritzak eman dio aurten, erailketa izan eta 44 urtera", azaldu du Anuska Ezkurak, Bizikidetzatza Batzordeko kideak.

Modu horretan, oraindik egin ez dioten aitortza publikoa egingo dio Arrasateko Udalak datorren astean udaletxean, eta arrasatear guztiei dei egin diete ekitaldira joateko.

Lau alderdiak daude batzordean Aurreko agintaldian, Arrasateko Udalak memoria eta bizikidetzatza lantzeko bideari ekin zion, eta agintaldi honetan beste aurrerapauso bat eman du, "Memoriaren Eguna hildako biktimei aitortza ekitaldiak egiteko baliatzea adostuz, eta, bide horretan, Arrasateko herriarekin lotura estua duten biktimak aitortuz eta oroitzuz". Udalan ordezkariak duten lau alderdiek osatzen dute Bizikidetzatza Batzordea.

Juan Arzamendi Musika Etxeak bi milioi euroko laguntza jaso du

Next Generation funtsetik 1.902.281,59 euro jasoko ditu Udalak musika etxearen proiektua laguntzeko

E.A.B. ARRASATE

Juan Arzamendi Musika Etxearen obraren bigarren zatia aurkeztu zuen Udalak funtsetara, 2021eko uztailetik aurrera Moyua SL enpresak gauzatutakoa, hain zuzen. "Estatuan 405 proiektu aurkeztu dira eta gure proiektua zortzigarren baloratua izan da, 1.902.281,59 euroekin", nabarmendu du Maria Ubarretxena alkateak. "Arrasaten azken urteotan egiten ari garen tokiko berroneratze politika aktiboen aldeko bultzada da. Arrasateko proiektua dauka eta Europak baliozkotu egin du. Arrasateren ondarea berriz ere herritarren eskura jarri dugu, gure eraikinak berreskuratzu eta ingurumenaren ere alde eginez. Mantendu, berritu, berrerabili eta bizitza eman, arrasatearren ongizatea bermatuz eta bizi-kalitatea hobetuz", gaineratu du.

Hornitzeko, 400.000 euro

Bestalde, musika etxea hornitzeko lizitazioa hiru zatitan banatu da, 401.266,89 eurotan. Lehenengo zatia, altzariak eta osagarriak jartzekoa, Miab enpresak irabazi du, eta 215.597,06 euro izango ditu horretarako -BEZa barne-. Bigarrena, auditoriumeko ekipamendu eszenikoa ezartzeko lehiaketa, Telesonic enpresak irabazi du, 102.461,81 euroekin -BEZa barne-. Azkenik, ikasgeletako ikus-entzunezko ekipamendua ere Telesonic enpresak jarriko du, 83.208,02 euroekin -BEZa barne-.

Kulturolara, 17.550 euro

Bestalde, Udal Gobernuak 17.550 euroko laguntza emango die Kulturolako erabiltzaile diren Arrasateko irabazi asmorik gabeko elkarteei, ekipamendua erosteko.

Euskaraldiaren gune ibiltaria azaroaren 11n iritsiko da

Ariketa soziala hasi arte, hilaren 18ra arte, izena emateko aukera egongo da egunero, Seber Altube plazako sarreran jartzen duten mahaian, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Horrez gain, bi ekitntza garrantzitsu dituzte datozen egunetan. Batetik, azaroaren 8an, 13:15ean, Euskaraldian parte hartuko duten entitateen talde argazkia

aterako dute Monterronen -eria eginez gero, Kulturateko areto nagusian-. Entitateek aukera izango dute identifikagarriak bertan jasotzeko.

Azaroaren 11n, Euskaraldiaren gune ibiltaria joango da Seber Altubera. Hasteko, Arrasate Musikaleko Banda Gaztea egongo da. Halaber, txapa zein identifikagarria jasotzeaz gain, Euskaraldiarekin herritarrek dituzten erronkak jaso nahi dituzte. Izen-emate mahaia jarriko dute, 18:00etatik 21:00etara.

Musakolako Gazte Eguna egingo dute bihar, zapatua

Azken urteetako etenaren ostean, bueltan dator Musakolako Gazte Eguna, eta zapatuan egingo dute, Musakola Herri Eskolako patioan. Goizean hainbat ekitntza egin ostean, herri bazkaria egingo dute 13:30ean, eta arratsaldean ere askotariko jolasak izango dituzte. *Musakola Bizirik 2022* egitasmoaren baitako festa izango da (Ikus *Goiena.eus*).

Santamasetako torneoetan eman daiteke izena jada

Mezu bat idatzi behar da izen-abizenekin, helbide elektronikoa-rekin, kategoriarekin -emakumezko edo gizonezko- eta telefono zenbakiarekin. Padelarako, *ake.padel@gmail.com*-era; teniserako, *ake.tenis@gmail.com*-era; squasherako, *iuribetxeba@gmail.com*-era. Pertsonako 10 euro ordaindu behar dira: 3035 0047 10 0470075137.

N Line 30. Urteurrena gama.

Nabarmendu zaitez



i20 N Line 30. Urteurrena

100 €-tik
aurrera hilean

- 100 €-ko 47 kuota
- Sarrera: 6.330,50 €
- Azken kuota: 8.426,63 €
- **UTB: %9,89***
- **TIN: %8,25**

Oharkabean pasatzea gustatzen ez zaien horietakoa bazara, zorteko zaude. Hyundai N Line 30. Urteurrena Edizio Berezia heldu da. Horrekin, gozatu ahal izango duzu i20 N Line-ren emozio guztiaz, i30 N Line-ren kiroltasunaz, KONA N Line-ren prestazio harrigarriez eta TUCSON N Line-ren diseinuaz eta dotoreziaz, aparteko ekipamenduarekin, sekulako prezioan.

Nabarmendu zaitez N Line 30. Urteurrena gamarekin.



Oarso Car Arrasate - Mugarri

San Andres auzoa 6 (Mugarri eraikina). 943 67 40 29 www.oarsocar.com

5 URTE Km-en mugarik gabeko
Bermea

Hyundai i20 N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 115-120. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,9-5,3.

Hyundai i30 N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 120-142. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-6,3.

Hyundai KONA N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 137. Kontsumo mistoa (l/100km): 6,1.

Hyundai Tucson N Line 30. Urteurrena berria. CO2 emisioak (gr/km): 155. Kontsumo mistoa (l/100km): 6,8.

WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo eta emisioen balioak.

Hyundai Nuevo i20 5 ATE MPI 1,2 85 ZP N LINE 30. Urteurrena autoarentzako finantzaketaren adibidea. **PSP: 20.700 euro. Finantzatutako prezioa: 16.400 euro. Barne hartzen ditu BEZa, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantentze-lanen eskaintza eta Hyundai-en Renove Plana, Hyundai ibilgailu bat erosi aurreko 6 hilabeteetan gutxienez eroslearen titulartasunpean erabilirik ibilgailu bat entregatzeagatik aplikatzekoa. Sarrera: 6.330,50 euro. Formalizazio-komisioa, eskura ordainduta (%3,75): 377,61 euro. Finantzatutako zenbatekoa: 10.069,50 euro. 100 euroko 47 kuota eta 8.426,63 euroko azken kuota. Interesak, guztira: 3.057,13 euro. Kredituaren kostua, guztira: 3.434,74 euro. Zor den zenbatekoa, guztira: 13.504,24 euro. Epekako prezioa, guztira: 19.834,74 euro. TIN: %8,25. UTB: %9,89. Frantziako amortizazio-sistema. Hyundai Finance-rekin finantzatua Cofeolem Bankuaren bitartez 2022/11/30era arte. Iragarki honetan agertzen diren modeloak: i20 N Line 30. Urteurrena, i30 N Line 30. Urteurrena, KONA N Line 30. Urteurrena eta TUCSON N Line 30. Urteurrena. Hyundai Motor España SLU enpresak bere azken bezeroei eskaintzen dien 5 urteko kilometraje-mugarik gabeko merkataritza-bermea Hyundai sare ofizialak hasiera batean saldufako Hyundai ibilgailuei soilik aplika dakieke, zerbitzuko pasaportearen baldintzen arabera. Informazio gehiago, Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es webgunean.**

Zaldibarko luizitik hasi, gabezia taularatzeko

Axut eta Artedrama konpainiek 'Hondamendia' antzezlana aurkeztuko dute Amaia antzokian domeka honetan, hilak 6, 19:30ean hasita. Kontaketak Zaldibarko (Bizkaia) zabortegiko tragediatik abiatu eta pandemiaren ertzak zeharkatzen ditu

Hasier Larrea ARRASATE

"Gure istorioak, gure moldean eta gure hizkuntzan" kontatzeko egiten dute antzerkia elkarlanean Axut eta Artedrama konpainiek. Oraingoan, *Hondamendia* obrak euskal gizartea kolpatu zuen tragedia bat jartzen du mahai gainean, 2020ko otsailean bi langileren heriotza eragin zuen Zaldibarko zabortegiko luizia. "Lehen seinale indartsua izan zen konturatzeko gure mundua ez dagoela ondo eta zerbait egin beharra genuela", azaldu du Ximun Fuchsek, antzezlaren zuzendariak.

Sentsazio hori areagotu egin zuen pandemiak: "Erabat isolatu gintuelako". Errealitate hori ere fikziora eramatea egoki ikusi zuten sortzaileek; hala ere, kontaketa 2022ko Inauterien testuinguruan amaitzea erabaki zuten, "denok elkartzeko une garrantzitsuan". Modu horretan, umorea eta goxotasuna gehitu diote *Hondamendia*-ri, desagertutako langileen bilaketan zein

ospitaleetan lehen lerroan artatzen aritu ziren pertsona horiek zoriontzeko: "Baina baita herriar xumea ere, denok bizi izan dugulako egoera hau".

Zaborra eta gabezia

Bakardadetik elkartasunerako ideia taularatzea "eromena" izan dela dio Fuchsek. Besteak beste, bideogintzako elementuak txertatu dituzte pantailetatik jasotako gehiegizko informazioa adierazteko. Baina gabeziaren metafora da gehien landu dutena, bigarren eskuko arropekin irudikatua: "Pertsona asko hil dira eta lehengo mundua, hein batean, desagertu da. Arropak oholtzan zehar barreiatzean, bertatik hainbat bizi pasa dire-

OBRAK TESTUINGURU TRAGIKOA ERAKUSTEN DU, BAINA AMAIERAN ELKARTASUNA NAGUSITZEN DA

la eta horien gainean ibiltzen garela islatu nahi izan dugu, zaborraren itxura eman, zaborra ere badelako zibilizazio moduan uzten dugun aztarna".

Hunkitzea lortu dute

Zaldibarko tragedia gertutik bizi zutenen aurrean taularatu izan dute obra; besteak beste, Eibarren eta Markinan: "Jendeak, oro har, iruzkin eder eta hunkigarriak egiten dizkigu, eta ikusi dugu gure lanak balio duela ikusleek beraien bizipenez hitz egiteko, jasandako mina berriz josteko, nolabait".

Egiteko horretan laguntzen du pertsona arrunten larruan jartzen diren antzezlanoen aktoreen –Ander Lipus, Maite Larburu, Manex Fuchs, Ruth Guimera...– lanak, baita Harkaitz Canok idatzi duen gidoiak eta talde teknikoak baliabide alde-rik egiten duen ekarpenak ere. Norberak atzera begirako sarko- na egiteko balio izango du, ziur, etzi iluntzeko ikuskizunak.

Erakusketa eta hitzaldia, mende erdiko urtemugari ekiteko

Arrasate Musikalek gaur irekiko du Kulturateko argazki galeria; hilaren 8an, hiru irakasle ohik jardungo dute

H.L. ARRASATE

Ikasturtean zehar izango diren ospakizunen lehen harria gaur jarriko du Arrasate Musikalek, musika eskolako argazki historikoen bilduma Kulturateko klaustroan egokituta. 18:30ean egingo dute inaugurazioa, zuzeneko musika lagun, eta azaroaren 25era arte egongo dira ikusgai 1972ko azaroaren 2tik gaur egunera arte ateratako irudiak. Aldi berean, eskola bera sortu baino lehenagoko giro musikala azaltzen duen panel batek osatuko du kontaketa. Dokumentu grafikook eskuratzen lagundu dieten guz- tiekin eskertuta agertu dira ekin- menaren antolatzaileak.

Herrian sortu, munduan hedatu

Era berean, musika eskolako ikasle eta irakasle izandako Alberto Urretxok, Unai Urretxok eta Mikel Arkauzek musikari



Ikasleak, biolina jotzen. ARRASATE MUSIKAL

gisa mundu zabalean bizi izan- dakoak kontatuko dituzte hila- ren 8an, martitzena, 18:30ean hasita, Kulturaten. Alberto Urretxo BOSeko tronboi-jolea da, Mikel Arkauz NOSekoa eta Unai Urretxo Korean eta Viet- namen ari da zuzendari lanetan.

Frantziatik dator Koolturen hurrengo talde gonbidatua

Dätcha Mandala izenez da eza- guna "rock heavy indartsu baten, folk tradizional baten eta Ekial- detik edo Afrika iparraldetik iritsitako eraso tribalen arteko bidaia" proposatzen duen hiru- kotea. Burdeoskoek ehunka kontzertu dituzte bizkarrean, eta Frantziako Estadioan ere jotakoak dira. Hilaren 10ean gaztetxean arituko dira, 22:00etan.

'918 gau' filma, Emakume Txokoaren eskutik, hilaren 8an

Arantza Santesteban historia- lari, zinemagile eta ikertzaileak zuzendutako dokumentala da datorren martitzenean 19:30ean Amaia antzokian emitituko du- ten ikus-entzunezkoa. Espetxe barruan bizitako esperientziak eta hausnarketak partekatzen ditu sari ugari jaso dituen fil- mean. Zuzendariarekin solasal- dia egongo da amaieran.



Protagonistak elkarrekin, zabor itxura duen arroparen gainean bilduta. AINHOA RESANO





Estimulazio artistiko goiztiarreko saioa, 2018an egindakoa. GOIENA

Kulturaren haziak hedatzearen garrantzia

'Haziara in the mapping' jaialdian parte hartuko du aurten ere Aramaiok. Paraiso Antzerkia taldea dago ekimenaren atzean, eta hurrei zuzendutako ekintzak egingo dituzte: azaroan zehar hiru ekitaldi, hain zuzen. Azaroaren 8an izango da lehenengoa

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Haziara in the mapping jaialdia ospatuko dute aurten ere Araban. Paraiso Antzerkia taldeak bultzatuta eta Arabako hainbat instituzioren laguntzarekin elkarlanean sortutako jaialdia da. Etxeko txikien alfabetatze kulturalerako zerbitzu publiko bat proposatzea du helburu jaialdiak. Hain zuzen, kulturaren haziak hedatu gura dituzte etxeko txikiengan.

Bada, *Haziara in the mapping* jaialdiko hiru proposamen iritsiko dira Aramaiora. Horietako lehenengoa azaroaren 8an izango da, martitzena.

'Zerupear' ikuskizuna

Martitzenean, *Zerupear* ipuin interaktiboa aurkeztuko dute kultura etxean: bi emanaldi egingo dituzte, 16:30ean eta 17:45ean. Parte hartzeko, izena eman behar da udaletxean. "Zazpi etxola muntatuko ditugu, zapiarekin, gortinekin... Familiak etxolarik etxolara joango dira,

bidea argizatuz", azaldu du Paraiso Antzerkia taldeko aktore den Rosa Garcia Sardonek. Ura, argia, lurra eta airea izango dira osagaiak.

2 eta 5 urte bitarteko haurrendako emanaldia izango da: "Gure asmoa da familiek euren umeekin jolas egitea. Ez datoz hona umeak ekartzera bakarrik, umeekin egotera datoz".

'Xokolat'

Azaroaren 19an izango da hurrengo ikuskizuna, 18:00etan, kultura etxean. 2 eta 5 urte bitarteko hurrei zuzendutako antzerki emanaldia izango da. Bi emakumeren arteko istorio da kontatuko dena: batek orde-na maitea du eta besteak, aldiz,

HAURTZAROARI ZUZENDUTAKO KULTUR PROGRAMAZIOAREN GARRANTZIA NABARMENDU DUTE

hankaz gora jarri nahiko du lehenengoaren unibertso aseptikoa.

Umeendako zinema

Minimach animazioa zinema emanaldia aurkeztuko dute azaroaren 20an, 18:00etan, kultura etxean. 2 eta 6 urte bitarteko umei zuzendutako emanaldia izango da. Umeen ikusmen-perzeptzioa hezteko eta irudimena suspertzeko balioko duen emanaldia da. "Askotan, umeak zinemara eramaten ditugu, baina ez dira euren adinerako egokiak izaten film horiek; luzeegiak izaten dira askotan", dio Garcia Sardonek. Hala, film laburrak eskainiko dituzte azaroaren 20ko emanaldian.

Haurtzaroari zuzendutako programazioaren garrantziaz dihardu jaialdiak: "Oso beharrezkoak dira eta emozioak pil-pilean dituzte". Aramaiora oso gustura etortzen direla gehitu du Garcia Sardonek, harrera ona egiten dietela.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

Bi-hiru aukera

Bidaiatzerakoan, tokira iristeko eta bertan egiteko bi-hiru ibilbide posible planteatzen dizkiot nire buruari. Ez naiz bakarria aukeratzeko gai. Norbaitekin geratzerakoan, ezin izaten dut elkarrekin ze plan egin aukeratu. Bestearen gustukoa izango ez den beldur.

Abesti bat aukeratzekoan bi-hiru aukera grabatzen ditut. Grabatu dudana ez delako aski ona izango. Lan bat entregatu behar dudanean, zutabe hau, esaterako, bizpahiru testu idazten ditut. Onak izango ez diren ideiarekin bueltaka.

Dena egiten dut horrela, bi-hiru aukera posiblerekin, bat bera ere ez ontzat hartu gabe. Ez dakit zer den onaren eta zer den txarraren arteko baremoa asetzen, eta baremoa normalean gure burua izaten dela kontutan hartuta, jai daukat.

Uste dut gaur egun horri *iruzurtiaren sindromea* deitzen zaiola. Baina, berriz ere, ez dakit zuzen nagoen. Hobeto bi-hiru liburu kontsultatzen baditut.

Pilota txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte aste bukaeran

Irailean hasi eta aste bukaera guztietan pilota partiduak jokatuko ostean, San Martin pilota txapelketako finalerdiak gaur, 18:00etan, eta domekan, 10:00etan, izango dira. Aramaioko bikote bakarrak jokatuko dira oraindik; domekan, infantil A mailan, Markel Beitiak eta Unax Gonzalezek.



Pilota partidua. A.E.G.



IMANOL SORIANO

Aterpe onean bazkaltzen

Erretiratuek giro onean ospatu zuten euren eguna. Pilotalekuan egindako bazkarian 85 bat lagun elkartu ziren; Cristina Etxenautia zinegotziak opariak banatu zizkien erretiratuei. Irudian ikusten denez, aterpe bikaina topatu zuten erretiratuek elkarrekin bazkaldu, herriko kontuak kontatu eta arratsalde partea giro paregabean pasatzeko.

Indarkeria matxistaren aurka batzeko hilabetea

Emakumeekiko indarkeriaren aurkako konpromisoa aldarrikatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte azarorako Udalak eta Mugimendu Feministak: irakurketa txokoa, solasaldia, antzezlan bat eta dokumental bat izango dira, besteak beste

Mirari Altube ARETXABALETA

Azaroaren 25a da Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta horren gainean kontzientzia hartzeraz, prebentziora eta hori prestatzera bideratutako programa antolatu dute Udalak eta Atxabaltako Mugimendu Feministak.

"Material interesgarri" osatutako gune bat prestatu dute liburutegian, indarkeria moten inguruan sentibilizatu eta hausnartzeko. Han daude, besteak beste: Stieg Larsson idazle suediarren *Los hombres que no amaban a las mujeres* eta *La chica que soñaba con una posilla y un bidón de gasolina* eleberriak; Margaret Atwood kanadarraren *Neskamearen ipuina*; eta kontsulta-liburuak: adibidez, Victoria Noguero psikologoaren *Ataques sexuales*. Filmak ere badaude: Fernando Leon de Aranoaren *Princesas* eta Helena Tabernaren *Nagore* dokumentala, esaterako.

Erduren eskutik solasaldiak

Erdu talde feministak, berriz, *Migratzaileen erregularizazioa ez da karitatea; justizia soziala da!* solasaldia antolatu du. Luciano Alfaro feministak gidatuko du, azaroaren 7an, udaletxe zaharrean (18:30). Eta hilaren



Udal ordezkariak, Feminista Mugimendukoak eta liburutegikoak, aurkezten. UDALA

23an, *Coreografías de la transgresión* dokumentala emango da Arkupen (18:00); solasaldiaz gain, afari-merienda egingo dute.

Antzezlan eta erakusketa

El Terrol antzerki konpainiak *Me quiere, no me hiere* ikuskizuna eskainiko du Arkupen azaroaren 20an (19:00). Tratu txarretatik tratu onetara bidaiatzen duen lana da; genero indarkeria pairatzen duten hainbat pertsonaia abiapuntu hartu eta bikote-harreman osasuntsuetan jartzen du arreta.

LGBTI+ kolektiboaren gaineko erakusketa ere egongo da, hilaren 24an (16:00-19:00). *Zarata* proiektuaren baitan, hamar istorio ezagutu ahal izango dira entzumenaren bidez; hamar aktorek parte hartu dute; adibidez, Telmo Irureta zumaiarrak.

Hilabetea bukatzeko, azaroaren 25erako, Mugimendu Feministak elkarretaratzea deitu du, *Instituzioek ere emakumeok kolpatzen gaituzte!* lelopean. Migratzaileen erregularizazioa eskatzeko sinadura bilketa egingo dute ekitaldiak iraun bitartean.

Energia aholku bulego bat gura du EH Bilduk, eta laguntza gehiago

Ekiola kooperatiba ere beharrezkoa dela gaineratu du, eta herritarrak informatzera gonbidatu ditu

M.A. ARETXABALETA

Energiaren eraldaketaren bidean ahalik eta ekintza gehien behar direla uste dute EH Bildukoek, eta herritarrak ere horretara gonbidatu dituzte. Adierazi dute teilatuetan eguzki plakak jartzen dituztenek 1.000 euroko laguntza jasotzen dutela "EH Bilduren inizatibaz", eta diote herrian "komunitate asko" daudela plakak jartzeko interesarekin. Horiek kudeatzen laguntzeko eta argibideak emateko energia aholku bulego bat zabaltzea proposatu dute.

Energiaren trantsizioan dena dela beharrezkoa uste dute, baita Ekiola ere: "Herritarrei dei egiten diegu kooperatibaren bulegoan informazioa eskuratzeko". Gaineratu dute Udal Gobernuari proposatuko diotela dirulaguntza lerro bat zabaltzea "Ekiolako familiak laguntzeko"; batetik, parte hartzen duten guztiendako, eta, bestetik, diru sarrera gutxien dutenendako gehigarri bat. Beste eskaera bat ere egin dute: "Udalak Ekiolan inbertsioa eginda familia zaugarrien artean argindarra banatzeko aukera bultzatzea".

Arima Soul taldearen kontzertua eta Asisko Urmenetaren saioa

60ko eta 70eko hamarkadako rhythm-and-blues, soul, funk eta jazz doinuak eroango ditu Arkupera Arima Soul laukoteak gaur, egubakoitza (20:00). Mikel Makala (baxua), Lidia Insausti (ahotsa), Paul San Martin (teklatuak) eta Gorka Gaztanbide (bateria) kide dituen taldea lehen diskoa kaleratzeaz dago.

Hitzaldi bi ere izango dira datorren astean: martitzenean (18:30), Asisko Urmenetak *Amaiur! Libera State* izenburupean jardungo du kontu-kontari; eta eguenean (18:00), Acabe elkarte Yolanda Iglesias psikologoak *Cuando la relación con la comida cambia* izango du hizpide.

OHARRAK

Elikadura berbetagari

Baby Led Weaning, janari solidoekin hasteko izenburupean, hitzaldia egingo du Nerea Iturbe adituak, Kuku Miku elkarteak antolatuta. Azaroaren 9an izango da, elkartearen egoitzan, 17:30ean, debalde.

Irteera Gatzagara

Euskaraldiaren etorrera girotzeko, Leintz Gatzagara irteera antolatu dute. Azaroaren 6an izango da, domeka; Aretxabaleko plazatik 10:00etan abiatuko dira eta Eskoriatzakoekin bat egingo dute 10:30ean, plazan. Asmoa da 12:30ean iristea eta argazkia ateratzea.



Eman izena Leintz Bailarako Ekiolan

Online edo gure bulegoetan

Zure energia, sortu, kontsumitu eta kudeatzeko aukera

- Eguzki energia kontsumitu
- Kooperatibako bazkide izan
- Erosoa, obrarik egin gabe

ARETXABALETA

Murrukixoko egoitzan, Durana kalea 13
asteazkenetan 08:30-19:00



www.ekiola.eus/
leintz-bailara

AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

"Ongizatea hobetzean eragin beharko genuke"

ELUSKA IRAZU ESKORIATZAKO EH BILDUKO BOZERAMAILEA

Eskoriatzaren bilakaeraz arduratuta, erronka handiak daudela dio Irazuk, eta Udalak bakarrik ezin dituela horiekin; hala, herritarren laguntza aktiboa behar dela esan du

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA 2019-2022ko agintaldian, Eluska Irazu izan da Eskoriatzako EH Bilduko bozeramailea. Oposizio-tik egin du lan, taldekideekin batera, eta aurrera begira egin beharreko moduak argi ditu. Pertsonengan jarri behar dela arreta eta herritarren ekarpenei entzun eta haiekin elkarlanean egin behar dela lan azpimarratzen du. Edozelan ere, agintaldi berezia izan da, eta gorabeherak ere izan dituzte Udal Gobernuarekin.

Agintaldia nola baloratzen duzu?

Pandemia egoerak agintaldi erdia hartu du, eta hor gaude. Halere, Eskoriatzaren bilakaeraz arduratuta. Sekulako dirutzarekin eraikitako azpiegituraz inguratuta, baina Gipuzkoan gertuko autobus zerbitzu traketsena duen herria gara. Lehen mailako osasun arreta COVID-19aren ondorioz ukituta, profesionalek ahalegin handia egiten ari diren arren; ondorioak hor daude. Merkataritza eta ostalaritza, maldan behera; gazteek etxebizitza bat lortzeko, gero eta zailago; uraren zerbitzua Udalaren esku egotetik kanpoko enpresa baten eskuetara arazoak pilatuz eta prezioa garestituz; herritarren eta politikaren arteko arrakala handituz... Pasibotasuna nabari, horri buelta eman beharra dago. Erronka handiak ditugu aurrean eta Udalak herritarren laguntza aktiboa behar du.

Nolakoa izan da Udal Gobernuarekin harremana?

Beraiek hor, gu hemen. Ez da egon inongo borondaterik lana partekatze eta, bereziki, Eskoriatzako beharrei erantzuteko. Udal Gobernuaren jarrera egon egotearena izan da; ahal den lan eta buruhauste gutxien hartuz. Arazoak etorri direnean erantzun dute, baina modu aringarrian. Ez herritarren beharrei eran-



Eluska Irazu, Eskoriatzako EH Bilduko bozeramailea, Gernika plazan. I. BELOKI

"GOBERNANTZA EREDUAN TALKA EGITEN DUGU, EGITURA KOOPERATIBOAGOA BEHARKO GENUKE"

tzunez; ez etorkizuneko proiektu baten bidez.

Oposizioetik non eragin duzue? Zein gaitan, bereziki?

Hainbatetan: irisgarritasuna; lehen sektorea; berdintasuna; energia trantsizioa; ingurumena eta aisialdia -Bidebarrieta, Gatz Bidea-; zahartze aktiboa -ortu publikoen baldintzak hobetuz); Egoitzan Pauso Berriak programa bultzatuz. Euskararen alorrean, Udalean euskararen erabilera sustatuz eta GOIENA euskarazko kalitatezko egunkaria izan dadin finantzaketa egonkor baten alde borrokatuz. Laburbilduz, *argi luzeak* jarritz, etorkizunari begira eragiten saiatuz.

Zein ardura izan dituzue agintaldian? Batzordekide izateko aukera besterik ez. Hasieratik eskaini dugu

"PERTSONAK ERDIGUNEAN JARRI BEHAR DIRA, ENTZUN, ADOSTU, ELKARLANEAN ARITU"

geure burua elkarlanerako, batzorderen batez arduratzeko. Erantzuna, ezezkoa. Gobernantza ereduan talka egiten dugu. Egitura kooperatiboagoa beharko genuke, herri txikia izanda; EAJk hierarkikoagoa du. Gainera, herritarrek, orokorrean, politikarekiko duten *deskonexioa* ikusita, gobernantza eredu parte-hartzaileragoa behar dela deritzogu. Hori ere oso desberdin ulertzen dugu. EAJren "auzolana" oso formala da; gurea, gertuagokoa, eztabaida gune irekiagoekin. Luxua da Udaleko lau zinegotzi bazterrean uztea, lan itzela egonda.

Zein proposamen egin dituzue agintaldi honetan? Eraman da aurrera horietakoren bat?

Egia esateko, horretan pozik egoteko moduan gaude... Proposatutako gehienak bereganatu,

saldu eta eraman dituzte aurrera EAJkoek: Gatz Bidea; Dorletarako zubia; Intxartxuetako irisgarritasuna hobetzea; trantsizio energetikorako hobariak; lehenengo sektoreari balioa ematea... Aintzat hartu ez dituztenak, adibidez: herriko talde feministekin bildu, dituzten ideiak eta proposamenak entzuteko.

Agintaldi hasieran zein zen EH Bilduren helburu nagusia? Bete da?

Gara aldakorrek bizitzen ari ginela eta etorkizunari begira jarri behar genuela esaten genuen, eta pandemia, zorritzarez, horren konfirmazioa izan da. Herrien bizitza, Eskoriatzarena, jokoan zeuden: *logela* herria edo herri bizia? Tamalez, ez dugu lortu Udalak horri erantzun iraunkorrik ematea. Egun, nahiz eta egoera hori areagotu, garaiz gaude, esperantza badugu; gauzak egiteko beste modu bat badago. Herritarrei, izango diren trantsizioei norabide egokian erantzun beharra dugu: energia, elikadura, merkataritza, gazteen emantzipazioa, osasungintza... Horiek gure ongizatean eragingo dutenez, ongizate maila hobetzean eragin beharko dugu.

Ezinbestekoa da erabakiak herritarrekin batera hartzea?

Herritarren ordezkariek gara. Pertsonak erdigunean jarri behar dira, entzun, adostu, elkarlanean aritu. Herritarrekin gaiak partekatze eskaera luzatuz; azkena, Startkraftekin irailaren 26an egin zuten bilera zela eta, urriko ezohiko bilkuran herritarrekin gardenki informazioa partekatze beharra zegoela eskatuz. Egundaino, ez dugu horren erantzunik jaso. Gu ere egin ginen gonbidatuak izan, bilera instituzionala zela argudiatuz. Gu ez al gara instituzioaren partaide? Baina konturatu egin behar dute: gure bailarako etorkizunerako eta herritarren etxeko ekonomiarentzat gai inportanteak dira.

Zerrendaburu aurkeztuko zara hurrengo udal hauteskundeetan?

EH Bildun prozesu parte-hartzailea garatuko dugu, herritarrekin batera. Abenduan zehar, Eskoriatzan jardunaldiak egingo ditugu hainbat gai estrategikotan konpromisoak zehazteko. Horiek aurrera ateratzeko nortzuk izango diren herritar egokienak gure oinarrikeri erabakiko dute.

Hilaren 19an izango da Euskaraldiaren jai herrikoia

Eskoriatzako Euskaraldia Batzordeko gazte taldea aritu da egitaraua antolatzen. 09:00etan, frontenis txapelketa egingo da, eta izena emateko azken eguna azaroaren 13a izango da. Herri bazkaria, berriz, 15:00etan izango da, plazan jarriko den karpan, eta ondoren banatuko dira frontenis txapelketako sariak. Bazkalostea musikaz girozten Julene eta Unai izango dira, eta 18:00etan, berriz, Euskaraldiaren Gune Ibiltaria egingo da, plazan hasita. 19:00etan, triki-poteoa egingo da, eta 22:30ean, Eten eta Banana Shake taldeen kontzertuak, plazako karpan. Amaitzeko, 00:00etan, DJ Jotatxo izango da, Inkernun.

OHARRAK

Bakarrizketa: 'Luze edo motz'

Domekan, 19:00etan, eskainiko dute Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoristek, Zaldibar antzokian.

Hitzaldia: telealarma

Betion arreta iraunkorreko zerbitzukoek eskainiko dute, ele bitan, Ibarraundin, azaroaren 9an, 17:00etan.

Hitzaldia: Paco Etxeberria

Azaroaren 11n, 19:00etan, *Ciencia forense y recuperación de la memoria histórica* hitzaldia izango da, Zaldibar antzokian, doan.

PATXI CASTRO




Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluak salmenta

• Besuak, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69



Urriko ohiko osoko bilkura. M.A.

Udal zergek %3ko igoera izango dute 2023an

Udal Gobernuak eta Euzko Alderdi Jeltzaleak 2023ko udal ordenantza fiskalak %3ko igoera izatea adostu dute. Bi tasa izan ezik, gainontzekoak izoztu egingo dituzte: hondakinen tasak eta udal gimnasioko tasak izango dute %3ko igoera, hain zuzen

Maidar Arregi ANTZUOLA

Urriko ohiko osoko bilkuran, 2023ko Antzuolako udal ordenantza fiskalak onartu zituzten. Aurreko urteetako oinarria jarraituz, KPian oinarritutako igoera izango dute. Hala, Udal Gobernuak eta EAJk zergen %3ko igoera adostu dute. "Zergetan %3 igoetza adostu dugu EAJrekin, uste baitugu KPia dezente gorago geratu dela. Udalak dena bere gain ere ezin du hartu, eta igoera horrekin zerbitzuei eusteko moduan egongo gara eta gure lana ondo egiteko aukera izango dugu, gainera, herritarrek askorik kaltetu gabe", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

EAJko Basilio Ormazabal bozeramaileak, ordea, tasa bakoitzak ze kostu daukan aztertzeke eskaera ere egin zuen martitzeneko osoko bilkuran: "Urtetik urtera ez da tasen gaineko inolako azterketarik egin tasa bakoitzak zein kostu duen jakiteko. Tasa batzuetan galera dago,

zaborren tasan, esaterako, eta guk eskatu dugu igotzea. Hasi-rako planteamendua tasak ez igotzea bazen ere, guk planteatu genuen zenbait tasa igotzea. Baita Udalaren zerbitzuen tasen azterketa egitea eta horren araber moldatzen joatea".

Hala, zergek %3ko igoera baldin badute ere, tasak izoztu egin dituztela azaldu du Antzuolako alkateak. Soilik bi tasak izango dute igoera: gimnasiokoak eta hondakinen tasak, hain zuzen ere. "Tasak izoztuta daude eta ez dago igoerarik. Soilik hondakinen tasa %3 igo dugu; izan ere, Mankomunitateari egindako ekarpenaren eta herritarrei kobratzen diogunaren artean desfasea dago. Bestetik, udal

HONDAKINEN ETA UDAL GIMNASIOKO TASEK ERE %3KO IGOERA IZANGO DUTE DATORREN URTEAN

gimnasioko tasa eguneratu egin dugu, hilero, 12 eurotik 15 eurora. Igoera beharrezkoa da, Udalareri ere kostua gora joan baitzaio: energiaren prezioan, makinaren mantentzean... ". Bestalde, Antzuolako alderdi sozialistak tasen igoeraren aurkako botoa eman zuen, herritarrei inflazioari aurre egiten lagundu behar zaiela iritzita; izan ere, horien izoztea proposatu zuen alderdi sozialistak.

Onartutako gaiak

Bestelako gaien artean, nabarmendu behar da Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira aurkeztutako adierazpen instituzionala onartu zutela. Bestetik, EHKOM kooperatibaren Udala bazkide izateko prozesua hastea onartu zuten, EH Bilduren botoekin. EAJ abstenitu egin zen eta alderdi sozialistak aurka bozkatu zuen. EHKOMEk sare askea sustatzea eta arrakala digitala haustea dituela helburu azaldu zuten.

GORA ETA BEHERA



Argiteria falta da 'pump track' parkean



Eztalara bidean dagoen *pump track* parkeko erabiltzaileek argia noiz jarriko ote duten jakin nahi dute. Izan ere, ordu aldaketarekin, arratsaldeetan parkeari probetxua ateratzea zaila dela diote.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

'Lakoste' antzezlanaren gertutik ezagutzeko aukera gaurko saioan

Debagoieneko Antzerki Plataformaren (DAP) baitan, gaur, egubakoitza, *Ikusle kluba* ekimenean parte hartzeko aukera izango dute herritarrek. Hala, 18:00etan Olarango bigarren solairuan batuko dira *Lakoste* antzezlanaren inguruan jarduteko eta hausnartzeko. 19:00etan, aldiz, Torresoroan antzezlanaz gozatzeko aukera izango da.

Azaroaren 15ean, berriz, *Zergatik antzerki talde bat herrian?* mahai-ingurua egingo dute, Eneritz Artetxeren eta Iñaki Ziarrustaren gidaritzapean, Olarango bigarren pisuan.

Eta hilaren 26an, kale antzerki tailerra egingo dute gaztetxoek gazte txokotan, 17:00etan.

Indarra lantzeko ikastaroak emango dituzte gimnasioan

Udal gimnasioan indar entrenamendua emango dute hilaren 7tik aurrera. Izena udaletxean eman daiteke. Eskolak sei lagunekoa izango dira, eta hiru ordutegi egongo dira: astelehena eta eguaztenetan -10:30-11:30 eta 17:30-18:30- eta martitzen eta eguaztenetan -18:30-19:30-. Prezioa 40 euro da -gimnasioko bazkide-tza+ikastaroa-.

OHARRAK

Arrolaren irteera

Bihar, Beriainera joango dira Arrolako mendizaleak.

Zinema emanaldia

Domekan, 18:00etan, Torresoroan, *The Breadwinner* filma. 2 euro.

Ilustrazioa tailerra

Ione Larrañagak azaroaren 8an ilustrazio tailerra eskainiko du, 17:00etan, liburutegian. Izena aurrez eman behar da.

'Hil arte bizi'

Tailerrean izena emateko azken eguna gaur da. Tailerra hilaren 9an, 16n, 23an eta 30ean egingo da.

Landatxopek beteta dakar azaroko kultura agenda

Landatxopek antolatuta, Udal Artxiboa ezagutzeko irteera egingo dute hilaren 10ean, 16:30ean. Iñigo Ramirez de Okaiz historialariak gidatuko du bisita. Plazak mugatuak dira. Hilaren 12an, berriz, gaztainera jana egingo dute, 18:30ean Landatxopen, eta azaroaren 15etik 18ra erretiratuendako karta txapelketa izango dute.

ETXEBIZITZA ETA ERAIKUNTZA



Etxean gozo

Etxebizitza sustapen berrienak

Neurrira egindako altzari pertsonalizatuak

Etxebizitza efiziente eta erosoak

Etxeak birgaitzeko dirulaguntzak

Eraginkortasuna hobetu, eta aurreztu



Arrasateko San Andres auzoko Uribesalgoko etxebizitzak. BIBAI INMOBILIARIA

Gakoa, distribuzioan eta kalitatezko materialetan

Arrasateko Bibai Inmobiliaria ari da arduratzen Uribesalgoko urbanizazioko etxebizitzez, Gelmako etxez eta Amenabarrek eraikitakoez. Interesdunentzat badira aukerak, eta erosotasun guzti-guztiak eskaintzen dituzte bertako etxebizitzek

Arrasateko Bibai Inmobiliariak promozio paregabeak eskaintzen ditu. Horren adierazle da Bibai agentziak daramala San Andres auzoan iaz eraikitzen hasi ziren Uribesalgoko urbanizazio proiektuaren gidaritza; 49 etxebizitzatik bost falta zaizkie soilik saltzeko. Gelman, berriz, 470 etxebizitzatik hiru dituzte salgai, eta Amenabarreko 69 etxebizitzetatik guztiak dituzte salduta.

Argitasun handiko etxeak

Bibai Inmobiliariako arduradun Zigor Aginagalde dioenez, etxe bat erosi nahi duen bezeroarentzat aukera gehien Uribesalgoko etxebizitzetan dago. "Uribesalgoko proiektuan, Gelmakoen antzera, etxeak oso ondo lantzen dituen arkitekto batekin lan egiten dute bi enpresa sustatzaile horiek. Enpresa sustatzaile hauen apustua kalitate handiko etxeak egitea da. Eta horretan dago gakoa. Etxe politikak dira, eta, hain zuzen ere, distribuzio aldetik oso ondo antolatuta dauden etxebizitzak direla esan nahi dut. Oso laukiak dira, ondo dituzte markatuta eguneko eremuak eta gaueko eremuak.

Gainera, argitasun handiko etxeak dira, eta nonahi kalitatea aurkituko dute bertara gerturazten direnek. Hiru logelako etxebizitzak dira geratzen direnak, eta, prezioari dagokionez, 260.000 eurotik aurrerakoak".

Kalitatezko materialak

Promotoreek, gainera, kalitatezko materialen apustu sendoa egiten dute, eta azpimarratzeko bi ezaugarri nagusi direla kontuan hartzeak dio Aginagalde: "Isolamendu termikoa duten fatxada aireztatuak dituzte Uribesalgoko etxebizitzek. Etxe barrua berehala berotzen da neguan kalefakzioa jartzean, eta energia gutxi kontsumitzeko aukera izango da. Udan, berriz, freskotxo egotea ahalbidetuko dute, isolamendu termikoagatik. Horrekin batera, etxebizitzaren artean tabike hirukoitza dago.

Bibaik bigarren eskuko etxeen salerosketan ere buru belarri dihardu. "Kalitatezko bermearen adierazle da 2022an saldutako etxebizitzaren %40 hamar egunean saldu dugula eta %85, berriz, 50 egunean".

BANAKETA BERRIAK **ESTRA ASKOREKIN**

Terrazadun 2 logelako etxebizitzak **140.000 €-tik aurrera** (BEZ gabe)



TERRAZA
PRIBATUAGOAK

SERIETIK DATOR LURZORU
ERRADIATZAILEA
ETXEBIZITZA BERRIETAN

BERGARA · www.lorentxoko.com

**Berriz
ere**

lorentxoko

P25 · bizigune berria

Gure Lorentxoko maiteak berrasmatzen jarraitzen du eta Bergarako higiezin merkatuko etxebizitzarik ikusgarrienak eskaintzen dizkizu.

Oraingoan, bereziki pertsonalizatuak, maiteminduko zaituzten xehetasun guztiak eta, nola ez, GERen bermearekin.

Zatoz Lorentxokon oraindik eskuragarri dauden etxebizitza berriak ezagutzera.

**ESKAITZA URTEA AMAITU
ARTE: PREZIOAN BARNE
OPARI TRASTELEKUA**

GE grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: **943 31 66 11**
Ernai, 1 · 20570 BERGARA. **650 44 21 59**

E: comercial@grupoeibar.com

Etxe pertsonalizatuak, kalitateari eutsiz

Etxebizitza banaketak berri dituzte Bergarako Lorentxokoko eremuko azken fasean. Banan-banan egokitu dituzte etxebizitzaren espazio antolaketak, bezeroen nahiak aseta, eta erdiak baino gehiago erreserbatuta dituzte dagoeneko

Bezeroekin batera egindako aldatetarik gustatu egin zaizkie bergarrei, eta Lorentxoko guneko azken faseko etxebizitzaren erdiak baino gehiago, %60, erreserbatuta ditu dagoeneko Grupo Eibarrek. Herritarrek haiengan "beste behin" jarritako konfiantzarekin oso pozik daude eraikuntza etxeokak, eta hurrengo urteko lehen hiruhilekoan hasiko dituzte eraikitze lanak.

Bezeroen gustuko aldatetarik

Grupo Eibarrek "mimo handiz" landu du Lorentxoko proiektua, "bergararren pentsatuz". Prezio lehiakorretan eta bezero bakoitzari onena eskaintzeko



Lorentxokoko azken faseko etxebizitza blokeak izango duen fatxada. GRUPO EIBAR

diseinatu dituzte Lorentxokoko etxebizitza guztiak. Banan-banan egokitu dituzte etxebizitzaren espazio antolaketak. Gainera, irailean eskaintza berezia egin zuten, eta trastelekua oparitu. Gazteendako bizitza-espazio bat, familiendako... berdeguneak eta haurrendako parkeak dituen gunea da Bergarako Lorentxoko; "Etxebizitza argitsu eta terrazadunak, bezero bakoitzak nahi bezala pertsonalizatuak eta gehigarri ugariarekin". Esaterako, bi logelako etxebizitza guztiek bi bainu izango dituzte; terraza berriak ekialdean, goizeko eguzkiarekin gozatzeko; konfort handiagoa, zoru erradiatzaile bidezko berokuntzari esker; toldo bertikalekin terraza pribatuagoak eta jardineriari esker, berdez beteriko terrazak.

Kalitateari eutsiz

Lorentxokoren fase berria hiru fatxadako bloke bat da eta bi eta hiru logelako eta hiru orientazio arteko etxebizitzak eskaintzen dituzte. Grupo Eibarren esanetan, Bergaran izan duten esperientziak barruko banaketak

hobetzen lagundu die, "etxebizitza praktikokoak eta metroetan eraginkorrak eratuz, beharrezkoa ez duzu lan oro saihesteko eta, batez ere, etxeokekin denbora libre izateko". Horrela, aurreko faseekiko banaketa berriak eginez, etxebizitza bakoitza zehatz-mehatz aztertuz, orientazio berri bakoitzari ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatu dira, kalitateari eta pertsonalizatzeko aukerari eutsiz. Dio kalitatea mantentzen dutela bai elementu komunitarioak baita fatxadetan eta baita etxebizitza propioetan ere.

Bulegoa zabalik dago

Azken eskaintza honi herritarrek emandako erantzunarekin oso pozik dago Grupo Eibar. Etxebizitzaren %60 erreserbatuta dute dagoeneko eta euren asmoa da lanak hurrengo urte hasieran hastea, 2023ko lehen hiruhilekoan. Euren bulegoa, baina, zabalik dago, bezeroen zalantzak argitzeko eta herritarrei behar duten informazioa eskaintzeko. Lorentxoko gunean bertan dago bulegoa, Ernai kaleko 1. zenbakian.

URIBESALGOKO AZKENEKO 5 ETXEBIZITZAK (San Andres - ARRASATE)

3 logelako etxebizitzak 260.000€-tik + BEZa

SUSTATZAILEA

SALTZAILEA

BIBAI

943 253 821
info@inmobibai.com
www.inmobibai.com

Esku-ematea 2024

Inguruko eskaintza bereziena, San Andresen

San Andres Homes promozioa egiten dabil Neinor Homes enpresa Arrasaten. 120 etxebizitza egiten dabil; aisialdirako eta jolaserako gune pribatuekin, eta bizilagunendako gimnasioa eta gourmet sala ere izango dituen promozioa

Neinor Homes enpresa sustatzailea Arrasateko San Andres auzoan ari da urbanizazio berria eraikitzen. Aurrez zehaztutako datak errespetatzen ari direla azaldu dute arduradunek; euren asmoa da 2023 amaierarako etxebizitzak entregatzea.

Gipuzkoan egiten dabiltzan hiru promozioetako bat da Arrasatekoa; 120 etxebizitza libre eraikitzen ari dira, hain zuzen.

Terraza handia

San Andres Homes du izena Arrasateko promozioak. Bi, hiru eta lau logelako 120 etxebizitza egingo dituzte Arrasaten. Na-



San Andres auzoko urbanizazioaren irudia. NEINOR HOMES

barmendu dute terraza handiak izango dituztela; batez ere, baxuko eta atikoko etxebizitzetan. Etxebizitzek 90 metro koadro eta 120 metro koadro bitartean izango dituzte.

Aparkalekuak

Garajeen autoendako 240 aparkaleku egongo dira; aparkaleku horiek kaxa itxi formatukoak izan daitezke –aparkatzeko bi tokirekin–, edo irekiak. Horrez gain, lokal komertzial bakarra izango du eraikinak, 200 metro koadrokoa. Bestelako gehigarriak ere izango ditu San Andres Homes promozioak: hainbat gune pribatu izango ditu, komunitateko bizilagunek bakarrik erabili ahal izango dituztenak.

Eraikina handia izango da. Baxuaz gain, zortzi solairu izango ditu komunitateak, eta, gainera, baita atikoa ere.

Urbanizazio itxia

San Andres Homes promozioa berezia da; izan ere, gaur egun, inguruko eskaintza bereziena du. Aisialdirako lorategi zabalak izango dituela nabarmendu dute, baita haurrendako jolastokia

eta bizikletendako aparkalekuak ere; hori guztia, urbanizazio itxi batean, bizilagunendako eskusiboa izango dena.

Etorkizuneko bizilagunek gourmet sala eta gimnasioa izango dituzte euren erabilerarako eta gozamenerako.

Fatxada aireztatua

Energia kontsumoa aurrezteko neurriak hartu dituzte urbanizazioa diseinatzerakoan eta materiala aukeratzerakoan; adibidez, aireztatutako fatxadarren bitartez soinu eta temperatura egokiak mantenduko dira, bizilagunen erosotasunerako. Horri zoru erradiatzaile berotze sistema gehituz gero, energia aurrezteko aukera izango dute bizilagunek.

Sukaldea altzari eta etxetresna elektriko hornituta egongo da, eta logela guztietan jarriko dituzte horma-armairuak. Bezeroak akaberako materiala aukeratzea izango du, modu horretan etxebizitza pertsonalizatuz. San Andrezko etxebizitzaren prezioak 213.500 gehi BEZa eta 389.500 gehi BEZa artekoak dira.



Horrela geratuko da Antzuolako Kalebarrengo promozioa. ORTUZAL PROMOCIONES SL

Ortuzal Promociones SL taldeak bi promozio ditu gaur egun balaran: horietako bat Antzuolan eta bestea Aretxabaletan. Antzuolako promozioa Kalebarren kokatzen da, lehen Alzarte gozotegia zegoen tokian. Obrak martxa onean doaz aurrera; gaur egun, fatxadak ixten eta tximiniak egiten dabilta. Antzuolako promozioan, hiru logelako 11 etxebizitza egingo dituzte.

Aretxabaletan, aldiz, bi eta hiru logelako 35 etxebizitza egiten dabilta Iturrizar kalean. Nabarmendu behar da lehenago beste 120 etxebizitza egin zituela Ortuzal Promociones SL-k inguru horretan; hala, guztira, 150 etxebizitza inguruko urbanizazioa egingo dute Aretxabaletan.

Gasik gabeko etxebizitzak

Antzuolako promozioan, gasik gabeko etxebizitzak egiten dabilta; hau da, aerotermita bidez berotuko dute ura eta berogailu sistema. Berogailua, gainera, zoru erradiatzaile bidezkoa izango da; hau da, beroa lurzorua azpitik igortzen duen berokuntza sistema erabiliko dute. Sis-

tema horietan, lurzorua materialak garrantzi handia izaten du; hala, egurra baino egokiagoa da zeramikazko lurzorua izatea. Bada, Antzuolako promozioan, egurra imitatzen duen zeramikazko lurzorua erabiliko dute. Ortuzal Promociones SL-ko arduradunek nabarmendu dute lehen mailako materiala erabili dutela.

Aretxabaletan, betiko sistema

Aretxabaletako etxebizitzetan ere lehen mailako kalitatezko materiala erabiliko dute; orain arte bezala, galdara individual gasdunak erabiliko dituzte ura berotzeko, eta zoru erradiatzaile bidezko berogailua.

Kalitatezko materialaren eraginez, "emaitza termiko eta akustiko oso onak" lortzen dituzte Ortuzal Promociones SL-n.

Pertsonalizatuko aukera

Garaiz dabiltzan bezeroek etxea pertsonalizatuko aukera izaten dute; talde sustatzailearen eta eroslearen arteko harremana zuzena da, bezeroak nahi duen etxea lortu ahal izateko.

Kalitatezko materiala promozio berrietan

Ortuzal Promociones SL taldeak Antzuolako Kalebarrenen eta Aretxabaletako Iturrizar kalean ditu promozioak gaur egun; emaitza termiko eta akustiko oso onak lortu dituztela diote taldeko arduradunek, erabili duten kalitatezko materialaren ondorioz

 **Neinor** HOMES

SAN ANDRES HOMES • **ARRASATE**

Terraza, jolas eta afari egunak
OSO GERTU DAUDE

ERAIKITZEN



Etxebizitza estilo berri bat iritsi da San Andresera

Terrazak | Haurrentzako jolastokia | Gourmet aretoa | Garaje eta trastelekua | Gimnasioa

NEINOR STORE: Maalako Errabala, 33

900 11 00 22 • neinorhomes.com



Bergarako Ikerleku kalean dago kokatuta Ugarte Aroztegiak-en altzairu denda, 2004az geroztik. UGARTE AROZTEGIA

Neurrira eginda dauden altzari pertsonalizatuak

Bezeroen beharretara egokitutako altzairuak egiten dituzte Ugarte Aroztegian, eskura dituzten baliabide guztiak erabiliz eta egungo joerak gogoan hartuta. Eskura dauden aukerak asko dira, eta, gainera, dendan bertan askotariko diseinuak dituzte ikusgai

Neurrira egindako altzari baten bila dabilen horrek Bergarako Ugarte Aroztegiara joan besterik ez du, bertakoek badakitelako horiek direla sarritan interiorismo-proiektu askotan irtenbiderik onenak.

Hain justu, bezeroen beharretatik eta euren beharretara egokituta fabrikatzen dituzte altzairu horiek, eskura dituzten es-

pazio guztiak aprobetxatuz, zentimetro bakoitza baliatuz, hala nola materialei, koloreei, ehundurei eta dekorazioari dagokienez, unean uneko joerak kontuan hartuta.

Horretarako, aurrez aurreko harremana dute bezeroekin, dituzten nahiak ahalik eta hobekien ezagutzeko. Altzairuak bete beharreko lekua, neurriak,

betebeharrak eta eskura duten aurrekontua ere aztertzen dituzte, jarraibide estetiko batzuk jarraitzearekin batera, azken emaitza ahalik eta egokiena izateko.

Izan ere, era horretan, Ugarte Aroztegiko kideek uste dute neurri egindako altzari esker espazio erabat pertsonalizatuak sortzeko aukera dagoe-

la, eta erdiesten dela altzari bakoitza bakarra eta pertsonalizatua izatea.

Aukera anitzak

Profesionalek horrelako altzari bat diseinatu nahi duenak, beraz, Bergarako Ikerleku kalean dagoen dendara jo dezake eskaerarekin.

Are gehiago, dendan bertan, egongelen eta logelen askotariko diseinuak dituzte ikusgai, eta baita sofak, alfonbrak eta dekoraziorako beste elementu batzuk ere, baliagarriak izan daitezkeenak neurrira eginiko altzariekin konbinatzeko; betiere, egungo joerak gogoan hartuz.

Baina ez dira soilik etxeetako altzairuetara mugatzen, aholkuak ematen baitituzte lokal komertzialeterako eta bulegoetarako ere; izan ere, aurreproiektuak eta aurrekontuak egiten dituzte.

Aroztegiko lanak

Aroztegian, berriz, neurri eginiko altzariez gain, beste lan batzuk ere egiten dituzte: lurzoruak, atek, eskailerak, barandak... Eta horiek guztiak egurra hainbat eratan landuta; adibidez, akabera-tratamendu ezberdinekin.

Eskaera egin aurretik, ordea, lan horien adibideetako batzuk ere altzairu dendan daude erakusgai, bezeroek lehen iritzi bat izan dezaten, bertan dauden adituen aholkularitzarekin batera.

ALTZAIRUEN LEKUA, BETEBEHARRA, NEURRIA ETA AURREKONTUA ERE AZTERTZEN DITUZTE

35 urteko ibilbidean, urratsak

Duela 35 urte, 1987. urtean, sortu zuten Ugarte Aroztegia, eta zenbait urrats egin ditu orduz geroztik, negozioaren beharretara egokitu ahala, pixkanaka hazten joan den proiektu bat baita.

Tailer txiki batean ekin zion bideari garai haietan. Jabeen etxepean kokatuta zegoen espazio batean hasi ziren arotz-lanak egiten, eta, zortzi urtera, eremu handiago batera lekualdatzeko hautua egin zuten: San Juan auzoko poligonoko industria-nabe batera, zehazki.

Baina urteek aurrera egin ahala, negozioa gehiago hazteko beharra identifikatu zuten, eta 2004an, egungo toki berean dagoen altzairu denda zabaldu zuten.

Ordutik, aroztegia zein altzari denda hobetzeko pausoak ematen dabilta, euren onena ematen saiatzen, izan diren, egun diren eta etorkizunean egongo diren bezeroei eskerrak.

NEURRIRA EGINIKO ALTZARIEZ GAIN, LURZORUAK, ATEAK ETA ESKAILERAK ERE EGITEN DITUZTE

eki termik
efizientzia energetikoa

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

ETXEBIZITZA BERRIZTU BEHAR AL DUZU?

Efizientzia energetikoa hobetzeko esku-hartzeetan espezializatutako lan taldea

BASERRI ZEIN ETXEBIZITZA ERREFORMA INTEGRALAK



Etxebizitza efiziente eroso eta osasungarriak



Barandiaran

= berrikuntzak | = materialak | = berriztagarriak

Etxebizitza efiziente, eroso eta osasungarriak

Ez dira asko eraikuntza proiektuak hasieratik bukaerara eskaini ditzaketen profesionalak. Beasaingo Barandiaran Berrikuntzak taldearen kasua da, eta 43 urteko esperientzia du berme nagusi. Argi dago jakin duela erronka berrietara egokitzen

Eraginkortasuna, efizientzia energetikoa eta erosotasuna uztartu nahi duen orok Beasaingo Barandiaran Berrikuntzak taldera jo beharko luke ezertan hasi aurretik. 43 urteko esperientzia dute eraikuntzaren sektorean, eta bidean ikasitakoekin osatu dute gaur egun duten eskaintza zabala.

Etengabe eguneratzen dute Beasaingo egoitzan duten erakusketa, adituak dira ziurtagiria duten instalazio energetikoetan, eta arituak bai barruko bai kanpoko egokitzapenetan –irisgarritasun lanak, zaharberritze proiektuak, efizientzia energetikoa, dekorazioa...–.

Profesional taldearen gomen-dio garrantzitsuena da, lehenengo eta behin, eraikinaren azalean inbertitzeko. "Leihoak, kanpora ematen duten hormak eta teilatuak, lurra... Alternatiba eta material asko daude merkatuan. Egia da momentuan inbertsio handia dela, baina eragin handia du geroko kontsumoetan. Mezezi du. Azken asteotan dei pila jaso ditugu; jendea oso ardurata dago gasaren eta argindarraren prezio igoerarekin, eta hori oraindik hotzik egin ez duela!", azaldu du Barandiaran Berrikuntzak taldeko arkitekto tekniko Jokin Barandiaranek.



Barandiaran Berrikuntza taldeak eraberritutako etxebizitza bat.

Materialak eta sistemak

Materialetan aukera zabala dago: poliestenoak, mineralak, sintetikoak... "Gure apustu nagusia material naturalen aldekoa da; egurrezko zuntza asko jartzen dugu, eta kortxoak ere bai. Hori bai, isolamenduak jarraitua behar du azalera osoan".

Eraikina edo etxebizitza ondo isolatzearekin batera dator energia transmititzeko sistema egokiena aukeratzea. Barandiaran Berrikuntzak taldean lantzen dituzte biomasa, eguzki energia termikoa zein fotovoltaikoa,

aeroterminia, geoterminia, kondentsaziozko galdarak, berotasuna mantentzeko aireztatze sistemak... Eta proiektu pertsonalizatuak egiten dituzte. "Gaur egun ditugun aurrerapen teknologiko guztiekin, mugikorrek ere neurtu daiteke kontsumoa zein den edota unean unean zein elektrotresna ari den lanean", dio Barandiaranek.

Kontsultetan, negozioetan eta etxe atarrietan ere egiten dituzte lanak; irisgarritasun eta zaharberritze proiektuak izaten dira, besteak beste.



Erakusketa Barandiaran Berrikuntzak egoitzan.

Erakusketa zabala Beasainen

Barandiaran Berrikuntzak-ek Beasainen duen egoitzan material biltegia, erakusketa eta salmenta puntua ere badituzte. Arreta pertsonalizatua eta aholkularitza teknikoa eskaintzen dituzte. Nahitaezko bisita da edozein zaharberritzeri ekin aurretik.

Proiektuen lanketa

Bezeroek soluzioak nahi dituzte eta Barandiaran Berrikuntzak taldean espezialistak dira askotariko alorretan. Eraikuntza egiten dute, baina urteetako esperientzia dute bai berritzeetan bai birgaitzeetan. Dekoratuzaileak ere badituzte. Hala, proiektu osoaren plangintza egin dezakete. "Gustatzen zaigu lekura joan, neurriak hartu eta bezeroari aurreproiektu bat aurkeztea, zenbaki batzuk izan ditzan".

Laguntzen kudeaketa

Edozein proiekturi ekin aurretik, kontuan hartu beharreko dirulaguntza lerroak daude; batez ere, energia berriztagarrien alorrean. "Horrelako erabaki bat baloratzerakoan beti begiratu behar dira bai amortizazioa bai eskuragarri dauden dirulaguntzak, eta dirulaguntza oso garrantzitsuak daude orain. EVEk kudeatzen ditu, eta Etxebide bidez atera dituzte duela gutxi. Departamentu bat dugu horretarako bakarrik".



BIARK STUDIO

arkitektoak

- Ziurtagiri energetikoak
- I.T.E.(eraikinen ikuskapen teknikoak)
- Teilatuak eta fatxadak
- Igogailuak eta irisgarritasuna
- Etxebizitza eta lokalen erreformak
- Baserriak eta txaletak
- Etab...

www.biark.net



Usaetxe plaza 1 behea, Arrasate - Tel.: 943 79 80 33 biark.arkitektoak@gmail.com

ANTZUOLAKO ETXEBIZITZEN SUSTAPENA

3 logelako 11 etxebizitza
Trastelekua barne

Zoru bero emaile eta ur beroa,
aeroterma sistemari esker
GAS INSTALAZIORIK GABE



Antzuolako
erdigunean




3 logelako
etxebizitzak



Zure
etxebizitza
pertsionalizatu



Sukalde
ekipatua



Berokuntza eta ur
beroa,
AEROTERMIA
bidez. Zoru
bero-emaile instalazioa
etxebizitza osoan, zoru
zeramikoarekin.



Informazioa
www.grupoortuibar.com
Telf. 943 761 118



ORTUZAL PROMOCIONES S.L.
GRUPO ORTUIBAR



ORTUZAL PROMOCIONES S.L.
GRUPO ORTUIBAR

ERALDAKETARAKO AZKEN FASEA


Informa zaitez

2-3 logelako etxebizitzak


WWW.GRUPOORTUIBAR.COM



Aretxabaletak
o erdigunean



2-3 logelako
etxebizitzak



Zure etxebizitza
pertsionalizatu



Sukalde
ekipatua



Zoru
bero-emaile
instalazioa
etxebizitza
osoa, zoru
zeramikoarekin



gaur egun

Birgaitzeko unerik onena, dauden dirulaguntzekin

Etxebizitzak eta baserriak birgaitzean eta zaharberritzean oinarritzen da, batez ere, Arrasateko Biark arkitekto taldearen lana. Lan horien barnean sartzen da fatxadak, teilatuak, igogailuak eta instalazioak eraberritzea, besteak beste.

Kasu bakoitza ezberdina da, eraikin bakoitzaren ezaugarriak berdinak ez direlako. Kontuan izan behar dira eraikinaren orientazioa, ezaugarriak -fatxadak, teilatua, leihoak, beheko solairua- eta instalazioak. Horien arabera, egiaztagiri energetiko

bat lortuko da. Hortik abiatuta, "aztertu egin behar dira hobekuntzak, hobekuntza bakoitzak ze onura ekar ditzakeen eta horrekin lotuta zer-nolako dirulaguntza lor daitekeen".

Eraberritzeko dirulaguntzak

Gaur egun, etxebizitzak birgaitzeko Eusko Jaurlaritzaren eta Europatik datozen dirulaguntzak daude, eta horiek eskatu ditzakete herritarrek: "Inoiz baino garrantzitsuagoak dira. Laguntza hauek proiektua finantzatzeko, eta obra %80ra arte". Lor-

tzen den hobekuntza kontuan edukita, dirulaguntza ezberdinak ematen dituzte entitateek. Hortaz, Biarkeko lantaldeak eraikinaren posibilitate guztiak aztertzen ditu, bezeroak ahalik eta dirulaguntza handiena lor dezan.

Baliabide gutxien duten familientzat laguntza gehiago daude, eta posible da "obraren %100 finantzatzea. Erraztasunak daude maileguak lortzeko; bai pertsonalak, baita komunitatearentzat ere.

Arkitekto talde honek euren bizitokiak birgaitzera animatzen



Arrasateko Elkano kaleko 36., 38. eta 40. zenbakietan egindako birgaitzea. BIARK

ditu debagoiendarrak: "Erraztasun pila daude. Orain, aukera ezin hobea da eraikinak eraberritzeko. Modu horretan, gure etxebizitza jasangarriagoa izango da, eta dirua aurreztuko dugu energian".

Aurreproiektu batekin jakin daiteke ze efizientzia duen eraikinak. Horrela, hain zuzen ere, bizileku jasangarriagoa izateko eta dirulaguntzak lortzeko aukerak ikusi eta aztertuko ditu Biarke.

Zaharberritzeak, bezeroa prozesuaz arduratu gabe

Pisuen, etxebizitza familiabakarraren eta baserrien eraberritze integralak egiten ditu Ekitermik kooperatibak. Egin beharreko proiektu guztietan beti hartzen dute kontuan eraikinaren alderdi energetikoa; etxebizitzak egunerokotasunean ahalik eta energia gutxien kontsumitu ditzan soluzioak ematen ditu lantaldeak.

Prozesu osoaz arduratzen dira, *giltza eskura* zerbitzua eskaintzen dutela baitio Ekitermik kooperatibako kide eta arkitekto tekniko Andoni Altubek, bezeroa



Ekitermik taldeak etxebizitza batean egindako zaharberritzea. EKITERMIK

ezertaz kezkatu ez dadin: "Prozesu guztiaz arduratzen gara. Proiektuak egin, gremioak kudeatu eta baimenak nahiz dirulaguntzak eskatzen ditugu. Pauso guztiez arduratzen gara, dekorazioak izan ezik. Bezeroak ez du ezertaz arduratu behar".

Energia aurrezteko moduak askotarikoak dira. Leihoak garrantzia dute, eta horiek edozein eraikinetan aldatu daitezke: "Leiho egokiak jarri behar dira, beira hirukoitzekin. Zoru bero-emailea ere pisu normaletan nahiz baserrietan jarri daiteke. Aerotermia eta plaka fotovoltaikoak jartzea beti ez da posible. Baserri inguruan, normalean, bai; pisu batean, aztertu egin beharko litzateke".

Altuberen hitzetan, isolamendu egokiarekin elektrizitate fakturan prezioaren beharaka-

da antzematen da: "Etxea ondo isolatuta bakarrik, %80ra murriztu daiteke berogailuaren faktura". Plakak jarrita gehiago aurreztu daitekeela dio, baina horrek inbertsioa eskatzen duela. Dena den, badaude dirulaguntzak etxeetan berritzeak egiteko; betiere, efizientzia energetikoa hobetzen bada: "Dirulaguntza potentek daude; batzuk energia berriztagarriak jartzeko dira eta beste batzuk, etxearen efizientzia energetikoa hobetzeko. Aldaketa txikiekin, leihoak aldatuta eta isolamendua sartuta ere, laguntzak jaso daitezke".

Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean dago Ekitermik kooperatiba, eta bailara osoko lantalde batek osatzen du: arkitektoek, teknikariek eta ingeniariak, hain zuzen ere.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Eraginkortasuna hobetu eta, gainera, aurreztu

Suradesa bizitegi-ondarearen birgaitze eta berroneratzea sustatzeko Debagoienean sortutako enpresa publikoaren bitartez, Jaurilaritzak eraginkortasun energetikoan irabazi eta energian aurrezteko ematen dituen dirulaguntzak lortzeko aukera dago

NEXT Funtsak izenez ezagutzen den programaren barruan, hiru dirulaguntza eskatzeko aukera izango da partikularrentzat: eraikinek, eraikina bera osorik berritzeko; etxebizitzek, etxe barruko obrak egin ahal izateko; eta komunitate osoa berritzeko, *Proiektuak* izenez ezagutzen direnak. Lan guztiek energetikoki berritzeak izan beharko dute. Esan gabe doa egoera txarrean dauden etxebizitzek, ikuskapen teknikorik pasatu ez dutenek, zati batean botata dauden eraikinek eta bestelakoek ez dutela dirulaguntzak jasotzeko aukerarik izango.

Eraikinak

Dirulaguntzak eskatu ahal izateko, 2000. urtea baino lehenagoko eraikinak izan behar dute, eraikinen ikuskapen teknikoa pasata izan behar dute eta 2020ko otsailaren 1etik aurrera hasitako obrek ere laguntza eskuratu ahal izango dute. Gainera, berokuntza-eskaria %35 eta energia maila %30 murriztea eskatzen da, eta hortik aurrera hiru multzotan banatzen dira laguntzak.

%30 eta 45 bitartean aurreztuz gero, gastuen %40 ordainduko zaie; gehienez, 6.300 euro etxebizitzako. Energia murrizketa %45 eta 60 bitartean bada, gastuen %65 ordainduko da; etxebizitzako, gehienez, 11.600 euro. Azkenik, %60 murriztea lortuz gero, gastuen %80 ordainduko da eta etxebizitzako, gehienez, 18.800 euro emango dira. Eraikinen kasuan bada beste laguntza bat ere, bertan dauden lokalak eta horien azaleraren arabera. Azken dirulaguntza hori aurretik aipatutakoari batuko zaio; hau da, dena batera jasoko da.

Etxe barruko obrak

Etxebizitza barruan egin beharreko lanak efizientzia hobetzeko izango dira; besteak beste,



Arrasateko eraikin bat. SURADESA

PARTIKULARREK HIRU AUKERA DITUZTE NEXT FUNTSETATIK DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO

isolamendu lanak eta leihoen aldaketak. Azken horiek izaten dira ohikoenak. Kasu horretan, bi baldintza bete beharko dira: alde batetik, energia mailan %30eko murrizketa lortzea edo berokuntza-eskarian %7ko aurrezpena izatea; bietako bat betetzea nahiko izango da dirulaguntza horiek eskatzeko aukera izateko.

Etxe barruko lanetan, etxebizitza barruan dauden materialek bakoitzaren kode teknikoa betetzeko, esaterako, leihoak, kasu horretan ere laguntzak eskatzeko modua izango da. Eskaera egiteko unean, etxebizitzan egingo diren lanetan egin beharreko inbertsio minimoak 1.000 eurokoa izan beharko du eta dirulaguntzek gastuen %40 ordainduko dute; etxebizitza bakoitzean gehienez eman ahaliko den kantitatea 3.000 euro izango da.

Proiektuak

Proiektuak dira komunitatea energetikoki eraberritzeko lanak. Kasu horretan, komunitate osoa edo eraikinak energetikoki birgaitzeko dirulaguntzak izango dira. Proiektuak idatziz aurkeztu behar dira eta dirulaguntza bai edo bai jasoko dute proiektua aurkeztutakoan. Ondoren, komunitateak erabakiko du lanak egingo diren edo ez. Eraikinen kasuan ere dirulaguntza hori jasotzeko aukera egongo da; kasu horretan, lanak egin beharko dira eta dirulaguntza horiek egin aurretik jasoko dute.

Laguntza eskatzeko baldintza bakarra eraikinen ataleko baldintza berak aurkeztea izango da. Laguntzak, ordea, ezberdinak izango dira eraikin bakoitzaren ezaugarrien arabera. Hogei etxebizitza baino gutxiago dituzten eraikinek 4.000 euro finko jasoko dituzte hasieratik. Horrekin batera, etxebizitza bakoitzeko 700 euro gehiago jasoko dituzte. Aldiz, hogeitaz etxebizitzatik gora izanez gero, 12.000 euro jasoko dituzte komunitateak eta etxebizitza bakoitzeko, berriz, 300 euroko laguntza; gehienez, 30.000 euroko laguntza jaso ahaliko da.



Laguntza osagarriak eraikinentzat

Laguntza hauek eraikinentzat bakarrik izango dira osagarriak:

Bizilagunak

Baldintza berezi batzuk biltzen dituzten partikularrek ere eskatu ahal izango dituzte beste laguntza batzuk. 65 urtetik gorako pertsonak eta elbarritasun bat dutenak eta haien diru sarrerak 25.000 euro baino gutxiagoak izanez gero eskatu ahal izango dituzte; baita diru sarrerak urtean 12.000 euro azpitik jasotzen dituzten pertsonak ere.

Etxebizitzak

Bestalde, etxebizitzaren batean amiantoa kendu behar bada, laguntza estra bat izango dute behar dutenak. Etxebizitza bakoitzeko 1.000 euroko laguntza jasoko dute; gehienez, 12.000 euroko laguntza.



Eskaera eta kudeaketa prozesuak

Dirulaguntza horiek jasotzeko eskaerak eta kudeaketa prozesu osoa Suradesaren bitartez egin beharko dira. Lehenik, proiektua aurkeztu behar da. Ondoren, Suradesak proiektu hori aztertu eta ebazpena egingo du, egin beharreko lanak zer-nolako efizientzia maila izango duten jakiteko, eta efizientzia horri dagokion diru kantitatea eskatuko da.

Ebazpen hori Eusko Jaurilaritzara bideratuko da, haren onspena jaso eta sinatzeko. Onspena eta sinadura jasota, dirua Jaurilaritzatik Suradesara pasatuko da, lehenik. Azkenik, Suradesa enpresak berak izango du ardura diru hori dagokion pertsona edo komunitateri emateko. Nahiz eta Eusko Jaurilaritzatik pasatu ebazpena, Suradesa da kudeaketa gestio guztia egiten duena eta eskatzaileak zuzenean bertara joan beharko du eskaera egitera.



DANBAKA))))))
MUSIKA LEHIAKETA

AIERT • BALARRASA SUKENA • BROKEN LEGACY

Bergarako Seminarixoa | **Azaroaren 11n, egubakoitza** | 21:30

Chill out gunea, 20:00etatik aurrera, San Martin plazan (Errege Seminarioaren arkupeetan), DOAN
Artista gonbidatuak: Cristian Coello eta Olatz Ugarte

Sarrera arrunta **4€** • *Goiena* app-ean alta ematen dutenek **2€** • Goienakideek, *Goiena* txartela erakutsita **0€**

Azaroak 25

**KTARSIA • ILUMINATIZZ
ERROMINTXELAK • ETXEPE**

Abenduak 16

**ARRAGOA • ISLABAT
ORHI • SINDY BERBENAS**

BABESLEAK

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanikidetas, Gaiterria
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deporte



Bergarako Udala

LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Ozkarbi Eguna girotzeko hainbat ekintza asteotan

Elkarteko zuzendaritzak hilaren 26rako iragarri du Ozkarbi Eguna; eguerdiko txikiteoa eta bazkaria egingo dituzte. Horrekin batera, beste hiru ekintza ere antolatu dituzte. Gaurko, esaterako, mahai-futbol txapelketa dago iragarrita 18:30ean hasita

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ozkarbi elkarte da Elgetan bazkide kopuru handiena duen elkarte, eta 2019an egin zuten Ozkarbi Eguna azken aldiz. Berreskuratzeko saiakeran dihardu zuzendaritzak, baina maiatzean egindako deialdian bazkide gutxi eman zuten izena. "Sei edo zortzi bat lagunek eman zuten izena, eta atzeratu egin genuen", azaldu du gaur egun elkarteko presidente den Lierni Mendizabalek. Azaroa maiatza baino urte sasoi hobea izan daitekeela pentsatuta egin dute, berriz ere, Ozkarbi Egunerako deialdia. "Bazkariarekin batera egitarau txiki bat ere prestatu dugu aurreko asteotarako".



Neska-mutikoen txapelketa, 2019an. GOIENA

Mahai-futbol txapelketa

Gaur, barikua, emango diote hasiera egitarauari. Mahai-futbol txapelketa antolatu dute elkartean bertan. 18:30ean, 12-16 urte arteko umeendako txapelketa jokatu da. Doan izango da izen-ematea. 19:30ak bueltan emango diote hasiera 16 urtetik gorako mahai-futbol txapelketari. Kasu honetan, izen-ematea 4 euro da.

2019ko txapelketa arrakastatsua izan zen; 26 bikotek eman zuten izena. Neska-mutikoen artean Urko Lozano eta Arkaitz Erras-

**HILAREN 18KO
BAOBEER GARAGARDO
DASTAKETARAKO
IZENA EMATEA
KOMENI DA**

ti nagusitu ziren, eta helduetan Jabier Larrañaga eta Oxel Erosarbe. Antolatzaileek gogoratu dute txapelketa bazkide direnendako zein ez direnendako dela. Unean bertan egingo da izen-ematea.

Ikuskizunak eta dastaketa

Hilaren 11rako Iago magoaren saioa (18:00etan), eta Unai Cantabranaren kontzertua (20:00etan) iragarri dituzte Ozkarbi elkartetik. Sarrera irekia izango da.

Hilaren 18rako, berriz, Baobeer garagardo dastaketa egongo da, 19.00etan. Bost gazta eta ogi ezberdinekin emango dituzte dastatzera Baobeer garagardoak Mikel Irazabalek eta Maite Barrainkuak. Gehienez ere, hogei lagun onartuko dituzte, eta prezioa 5 euro da. Izena lehenbaitzen ematea eskatu dute.



XALBADORPE ELKARTEA

Erretiratuak Gernikan egun-pasa

Urteroko txangoa dute eta aurten ere ez dute hutsik egin. Urriko azken astelehenean, Elgetako 44 erretiratu egun osoko txangoa egin zuten Gernika aldera. Azokan pasa zuten goiza eta dotore bazkaldu zuten ondoren. Hilaren 10erako iragarri dute hurrengo ekintza: gaztaina-errejana egingo dute, 18:00etatik aurrera, Ozkarbi elkartean.



OIHANA ELORTZA

Beldurrezko ipuinak, ilunetan

Barikuan ospatu zuten Gaba Beltza Elgetan. Beste estilo bateko jai bultzatzeko asmoz eta ospakizun globalizatuari alternatiba propioa sortzeko helburuarekin elkartu dira aurten guraso elkarte, liburutegia eta gaztelekua. Hilari ondoan entzundako ipuinekin amaitu ziren umeen zuzendutako ekintzak. Adi entzun zituzten denek.

Bazkarirako izen-ematea zabalik da

Hilaren 26rako, eguerdiko txikiteoa eta bazkaria antolatu dituzte Ozkarbin. Bazkaria 14:30ean izango da: "Betiere, hoguei lagunetik gora apuntatzen badira". Hilaren 16ra arteko epea eman dute izena emateko. Prezioa 30 euro da. "Bazkideek eraman ditzakete bikotekidea, lagunak... baina bazkide baten bitartez egin behar da izen-ematea".



Ozkarbi Eguneako bazkaria 2019an. GOIENA

Adimen kognitiboa lantzeko tailerra hilaren 24tik aurrera

Udalak antolatuta, adimen kognitiboa lantzeko tailerra egingo dute, beste behin, Elgetan. Lehen saioa hilaren 24an izango da, 10:30etik 12:00etara. Jarraian etorriko dira beste bederatz, guztiak egunenetan. Interesatuak hilaren 21erako eman behar dute izena, udaletxera deituta edo gizarte@elgeta.eus helbide elektronikora idatzita.

OHARRAK

Ate irekiak ludotekan
Gaur, 17:00etan hasita, ate irekiak LH1 eta LH2koendako.

Euskaraldia

Eguaztenean elkartuko da batzordea, 18:30ean, Ozkarbin.

Aranzadiren hitzaldia

Eguaztenean, 18:30ean, *Gure lurraldeko paisaia eta Egoarbitzako landaredia* izeneko hitzaldia udaletxean.



Furgobaratzako Aitziber Oregi ureztatzearen gaineko azalpenak ematen, San Joxepeko ortu komunitarioetan. IMANOL SORIANO

Lursaila eta azalpenak jasota, ereiteko ordua da

San Joxepeko ortu komunitarioetako erabiltzaileek jaso dituzte baratzean lanean hasteko oinarrizko argibideak, Furgobaratza zerbitzu ibiltariaren eskutik; urriaren 29an egindako bigarren ikastarora 40 bat lagun joan ziren, zaletasun berri bati ekiteko "oso gogotsu"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Urriaren 29an egin zuten San Joxepeko eremuan kokatuta dauden ortu komunitarioetako erabiltzaileei begira antolatutako bigarren ikastaroa. 40 bat lagun bertaratu ziren, alde zuzeneko zozketa bidez egokitu zitzaizkien lursaila identifikatzeko eta Furgobaratzako Aitziber Oregiren azalpenak entzuteko.

Eremuak 91 lursail ditu, eta horietatik 75 esleitu dira; esleitzeke dauden 21 ortuetako bat lortzeko, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943 77 91 56. Ortuokin "aisialdi aktiborako eta inklusiborako topagune bat" sustatu nahi izan du Udalak, harreman berriak eta belaunaldien arteko trukea bultzatzeko; aldi berean, nekazaritza ekologikoa ere bultzatu nahi dute. Horregatik, bertako produktuek saltzea debekatuta egongo da.

Gakoetako bat, maiz joatea

Furgobaratzako Aitziber Oregi aritu zen azalpenak ematen. Urte

"oso berezia" izaten ari denez, oraindik landatzeko aukera dagoela dio: "Orain arte, garai hau berandu izaten zen landatzeko, baina aurten oraindik denboraz gaude gauza asko landatzeko". Oregik argitu duenez, akats nahiko hedatua izan ohi da ortua larregi ureztatzearena: "Askok uste dute bi edo hiru egunetan behin ureztatu beharra dagoela, eta ohitura hori aldatzen saiatzen gara. Pixkanaka joango dira ikasten, beste edozein zaletasun bezala". Horrez gain, maiztasun finko batekin etortzearen garrantzia ere azpimarratu du Oregik: "Gutxitan etorri eta ordu asko eginez gero, orduan hasten dira bizkarreko minak eta bes-telakoak. Maiz etorritz gero, adi-

**ESLEITZEKE DAUDEN
21 ORTUETAKO BAT
LORTZEKO TELEFONO
ZENBAKI BAT DAGO:
943 77 91 56**

bidez, edozein izurrite egongo balitz denboraz harrapatu daiteke, eta, horrenbestez, kaltea kontrolatu".

Aholkularitza, aurrerago ere bai
Aurrerago ere etorriko da Furgobaratza zerbitzu ibiltaria ortu komunitarioetara; sasoiko produktuen haziak eroango dituzte erabiltzaileei begira. "Garaian garaiko produktuarentako haziak ekarriko ditugu, baita ohikoak ez diren haziak ere; izan ere, ortu hauetan badago aukera porruetaz eta azalorez harago ere landatzeko, eta saiatzen gara erabiltzaileengan arra pizten, exotikoagoak edo ezezagunagoak izango diren produktuak landatu ditzaten", dio Oregik.

Hala ere, aholkularitza zerbitzua da bereziki eskaintzen dutena: "Lau orduko ikastaroa eman dugu, baina zalantza handienak geroago sortuko dira. Azaroan bai etorriko gara, eta hurrengo bisita, seguruenik, apirilean izango da".



AITZIBER OREGI
FURGOBARATZA

"Erabiltzaileak oso gogotsu hasi ohi dira, interes handiarekin. Gerora, baina, garrantzitsuena da maiz etortzea; hobe da askotan etorri eta denbora gutxi egitea, gutxitan etorri eta hainbat orduz lanean egotea baino. Jarraipena egingo dugu, zalantza asko gerora etorri ohi dira eta".



MARITXU BARRENA
ERABILTZAILEA (25. ORTUA)

"Ortuak oso ondo jarrita daude. Ezer gutxi dakit, baina ikasteko eta lanerako animoso nago. Oinez heltzeko oso ondo dago eta partzelen neurria egokia da familia batentzat; 25. lursaila da nirea. Azalpenak oso ondo egon dira; ea entzundakoa praktikan jartzeko gai garen....".



PABLO ELKOROIRIBE
ERABILTZAILEA (32. ORTUA)

"Nirea 32. lursaila da, eta oso gogotsu nago landatzen hasteko; kuadrillako batzuk ondoan izango ditut, gainera. Ikastarora Youtubeko bideo batzuk ikusita etorri naiz, baina asko eskertu ditut bertan jasotako azalpenak. Denetik landatu nahi dut, probatzea beti dago-eta ondo".

Klima aldaketaz Aroztegi aretoan, ZTB jardunaldien barruan

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldien barruko *Klima aldaketari aurre!* izeneko erakusketa dago zabalik Aroztegin, azaroaren 13ra arte. Klima aldaketaren arazoa eta erronkak 18 muraletan azaltzen dira eta Bergarako errealitatea islatuko duten bizpahiru panel gehigarri ere baditu, klima eta energiari buruzko herriko diagnostikoaren ondorio nagusiekin.

Bestalde, Udalak publiko egin du 2023rako Aroztegi erabileta eta programazioa arautzeko baldintzen plegua, euren lanak bertan erakutsi nahi dituzten artistei eta eragileei begira. Proposamenak aurkeztu behar dira azaroaren 21erako (13:00).

Odol gehien eman dutenei omenaldia bihar, San Joxepen

Odol gehien eman duten bergarrei aitortza egiteko ekitaldia egingo dute bihar, azaroak 5, San Joxepen (13:00). Bergarako 12 emaile omenduko dituzte, emandako odol kopuruaren arabera diploma eta intsigniak banatuta; ondoren, San Joxepen bazkalduko dute. Odola eman nahi dutenek 747 48 99 20 (Dulce) telefono zenbakira deitu dezakete.

OHARRAK

Erorikoak prebenitzea

Hilaren 8an eta 10ean izango da ikastaroa, Agorrosinen (16:30-18:00). Izena emateko: 943 77 70 95 edo 943 03 54 00.

1944an jaiotakoak

Azaroaren 27an batzokian bazkalduko dute (14:30). Izen-ematea, hilaren 20ra arte: 669 36 49 74 edo 943 76 50 22.

1957an jaiotakoak

Azaroaren 26an autobus geltokitik irtengo dira (09:00); hamarretakoa eta bisita izango dute Gesaltza Añanan eta bazkaria Gasteizen egingo dute. Prezioa 100 euro da; izena eman behar da hilaren 10a baino lehen: ES88 3035 0189 3118 9103 8659 (Laboral Kutxa).

Eguenean zabalduko dute Arin zentroa

Pertsona nagusiendako eguneko arreta zentroak hilaren 10ean zabalduko ditu ateak, eguena. Zerbitzuan sartzeko hiru baldintza bete behar dira: Bergaran erroldatuta egotea, 65 urte edo gehiago izatea eta menpekotasun-arriskuan edo egoeran egotea

Xabier Urzelai Atxa BERGARA

Intentsitate txikiko laguntza behar duten pertsonendako arreta zentroa gertu dago, eta datoren eguenean zabalduko ditu ateak. 65 urtetik gorakoek eta mendekotasun arrisku edo mendekotasun arin egoeran dauden pertsonen egunean zehar erabiltzeko ekipamendua da. Eta, ekipamendu horren bitartez, premia espezifikoekin lotutako intentsitate txikiko laguntza eskainiko dute zentroan.

Helburuak, zehaztuta

Arreta zentroak izango dituen helburuak zehaztuta ditu Udalak: "Erabiltzaileen autonomiari eustea, beren ohiko ingurunean mantentzen eta gizarteratzen laguntzea eta, hala badagokio, isolamendu-egoerak konpentsatzea. Bestetik, harremanak lantzea, normalean bakarrik edo lan egiten duten senideekin bizi diren pertsonekin. Eta erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea, prebentzio eta jolas-jarduerekin eta arreta pertsonalizatuarekin". Horretarako erabiltzaileen jarraipena eta balorazioa egingo dute zentroan. "Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea ere aurreikusten da, trebetasunen garapena eginez, eguneroko bizitzako oinarrizko



Arin zentroko egongela. BERGARAKO UDALA



Arin zentroan sukaldea ere izango dute. BERGARAKO UDALA

jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzeke jarduera eta ariketa sinpleen bitartez. Hezitzaila ere izango da, aisia, hezkuntza eta kultura-jarduerak eginez. Laguntza emozionala ere eman da, gizarte-harremanak eta harreman pertsonalak izateko edo ezartzeko trebetasunak eskuratzeko eta harremanak ezartzeko aukerak sortzeko laguntza eskainiz".

Hala, Udaletik adierazi dutenez, erabiltzaileak Arin zentrora joateko ez da garraio zerbitzurik eskainiko. Hala ere, herribus zerbitzuak geraleku bat dauka zentroaren ondoan, eta, hain

zuzen, garraio bide hori erabiliz joan daiteke bertara.

Erabiltzaileentzako baldintzak

Arin arreta zentroa erabili ahal izateko baldintzak ere zehaztu dituzte, eta hiru dira: Bergaran erroldatuta egotea, 65 urte edo gehiago edukitzea eta menpekotasun-arriskuan edo egoeran egotea –lehen maila, mendekotasun balorazioan 25 eta 39 puntu artean lortu dituztenak–. Hala, erabiltzaileak duen egoera ekonomikoaren arabera ordainduko du zerbitzuagatik, eta hilean 5 euro eta 60 euro arteko kuota izango da.



Irene Galarraga, Maite Agirre eta Esther Ortiz de Zarate. EAJ

EAJk kritika Udal Gobernu Taldeari

EAJk ohar bidez gogorarazi du euren proposamena izan zela Arin eguneko udal arreta zerbitzua abian jartzea: "EH Bilduren Udal Gobernu Taldeak erakutsi du bereak ez diren proiektuak bereganatzeko duen beharra: Arin eguneko udal arreta zerbitzua, esaterako". Horrekin batera, egungo Udal Gobernu Taldeak ia lau urte hauetan erakutsitako proiektu eta kudeaketa falta kritikatu dute jeltzaleek, eta gaineratu dute egun martxan dauden proiektu gehienak aurreko agintaldian hasitakoak direla: "Zubieta-Masterreka edota Agorrosin futbol zelaia. Baita amaituta dagoen Labegaraietako kiroldegi berria ere. EAJtik orduan egin genuen lanari esker iritsi gara puntu honetara". Eta gaineratu dute hirugarren adinera bideratutako etxez etxeko gaueko zerbitzuarekin ez dutela pausorik eman.

GOIENA TELEBISTAK
8.000 IKUSLE EGUNERO.
 ESKERRIK ASKO!

Iturria: CIES, 2022 (Gipuzkoari dagozkie datuak)

goiena
 Zu hemen zaude.

Bozkatzeko unea iritsi da herritarrentzat

2023-2024ko Partaidetza Aurrekontuen prozesua bozketa fasean sartu da. Gaur hasi eta hilaren 20ra bitartean bozkatu ahalko da aurrera atera diren hogeita bat proiekturen artean. Herritar bakoitzak sei aukeratu ahalko ditu guztien artean.

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Maiatzean jarri zen martxan 2023-2024ko Partaidetza Aurrekontuen prozesua, eta azken fasean sartu da jada. Maiatzaren 6tik 27ra, 230 proposamen jaso ziren, eta ezarritako baldintzak betetzen zituzten 76 proiektu egin zuten aurrera. Maiatzaren 30etik ekainaren 17ra, berriz, proiektuak lehenesteko ariketa egin zen. Gainera, herritarrentzat bi saio ireki egin ziren, ekainaren 7an eta 9an. Proposamenak baloratuta, 54 izan ziren balorazio tekniko fasera pasa zirenak, eta hortik hogeita bat izan dira azken fasera heldu direnak. Orain, herritarren txanda iritsi da. Boto gehien jasotzen dituzten proiektuak, 500.000 euroak gastatu arte, 2023ko eta 2024ko udal aurrekontuetan gehituko dira.

Denetariako proiektuak

Azken fasean sartu diren proiektuak denetariakoak dira eta hiru multzotan daude sailkatuta: proiektu handiak, 100.000 eurotik gorako kostua dutenak; ertainak, 25.000 eta 100.000 euro artean balio dutenak; eta txikiak, 25.000 euro baino gutxiagoko kostua dutenak. Aipatzekoan artean, bi dira garestienak: jolas parkeetan elementuak jartzea 8



Maiatzean herritarrek euren proiektuak aurkeztu zituzten. JULEN IRIONDO

eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeentzat eta pilotaleku txiki bat jartzea San Martingo futbol kantxan.

Nola eman botoa?

Gaur ireki da botoa emateko aukera eta hilaren 20 amaituko da epea, eta herritarrek hiru bide izango dituzte bozkatzeko; betiere, 16 urtetik gorakoek eman ahalko dute botoa eta datu pertsonalak bete beharko dira, botoa baliozkoa izan dadin. Bestalde, sei proiektu aukeratu beharko dira, gehiago edo

gutxiago aukeratuz gero, kasu honetan ere, botoak ez du baliorik izango. Lehenik, online bidezko botoa emateko aukera egongo da Udalaren webgunean; bertan daude proiektu guztien nondik norakoak. Eraikin publikoak –udaletxea, kultur etxea, kiroldegia– dira bigarren aukera, bertan jarriko dituzten kutxetan botoa emanaz. Azkenik, azaroaren 8an, 11n, 16an eta 18an kalean jarriko duten erakusketa ibiltarrietan ere bozkatu ahalko da gustukoena duten proiektuaren alde.

Udal tasak eta zergak igo egingo dira datorren urtean

Udal Gobernuak %4 igotzea proposatu zuen, eta EH Bilduren botoekin aurrera atera zen proposamena

I.B.K. OÑATI

Datorren urteko tasak eta zergak izan ziren hizpide urriko osoko bilkuran, eta Udal Gobernuaren proposamena zergak eta tasak %4 igotzea izan zen; EH Bilduren botoekin aurrera atera zen proposamena. Zergen igoera %4 izatearen proposamena, KPIaren %10eko ezohiko igoerarekin alderatuz, "dezente murriztagoa" dela esan zuten, eta, egoera hori izanda, "ohiko helburuei heldurik", kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzen eta egoera zaugarrian dauden

eta behar handiena duten herrikideak zein herriko zenbait elkarte diruz laguntzen segituko dutela gehitu zuten.

EAJ, kontra

Eusko Alderdi Jeltzaleak, aldiz, zergak igotzearen kontrari bozkatu zuen, eta tasak izoztea izan zen haien proposamena. Jeltzaleek adierazi zuten irtenbidea ez dela "herritarrei ahalegin handiagoa eskatzea", baizik eta "Udalak kudeaketa egokia egitea, hurrengo udal aurrekontuetan lehentasunak ezarritik".

NIRE USTEZ



MIEL GURIDI

Zertarako? Nik egiten dut eta!

Badator berriro ere Euskaraldia. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da aurtengo ekitaldia. Motorrak berotzen gabiltza, entitateek –enpresak eta establezimenduak– izena eman dute; gutako bakoitzak izena emateko aukera dauka; bihar, zapatua, ekitalditxoak izango da plazan...

Hala ere, zenbait izena eman duten galdetzean erantzun hau jasotzen da: "Euskaraldia? Zertarako, guk egiten dugu, zer gehiago?". Bai; zorionez, euskara asko entzuten den herrian bizi gara, baina errotuta dauzkagun hizkuntza ohitura eskas horiek aldatzeko aukera aproposa da.

Zertarako? Euskara ikasi duen edo ikasten ari den aspaldiko lagunarekin euskara erabiltzeko, pentsatu gabe gaztelaniaz egin diogun zerbitzariari edo dendariari euskaraz egiteko, ezagutu berri duzun lagunarekin harremana euskaraz hasteko... Mila eta bat arrazoi daude Euskaraldira batzeko eta ahalegina egiteko.

Beraz, animatu, eman izena eta, zoazen tokira zoazela, erabili euskara barra-barra.

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala
zure mugikorrean

ASTE HONETAN

Silitia Taldea

Xabier Barrutia eta Ibai Sificato

"Dibertimendua horixe da, sortzea"



AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK



Ainhoa Galdos Olazar, Sancti Spiritus unibertsitateko klaustroan. O.E.G.

"Geldirik dagoen herria da Oñati, epe luzerako proiektu barik"

AINHOA GALDOS OLAZAR EUZKO ALDERDI JELTZALEKO UDAL BOZERAMAILEA COVID 19ak baldintzatu duen agintaldian, "herritarrentzat eta herriarentzat" lan egin dutela dio oposizioko buruak, "nahiz eta hori ikusaraztea ez den askotan erraza izan"

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI EAJko udal bozeramaile eta oposizioko buru da Ainhoa Galdos Olazar (Oñati, 1966). Agintaldia baloratzean, euren "jarrera erakitzailea" eta "Udal Gobernuaren gardentasun falta" aipatu ditu. **Nola baloratzen duzu agintaldia?** Agintaldi gazi-gozoa dela esan dezakegu. Gazia, gardentasun falta handia egon delako. Informazio asko azken momentuan jaso dugu, eta ez dugu nahi adi-

na ekarpen edo lanketa egiteko aukerarik izan. Gozoa ere izan da, oposizio eraikitzailea egin dugulako. Oñatiarrak daude gure erabaki bakoitzaren erdi-

"PROPOSAMENAK EGIN DITUGU AGINTALDI OSOAN, SAIL GUZTIAK KONTUAN HARTUZ"

gunean, eta ekarpenak egin ditugu bai aurrekontuetan, ordenantza fiskaletan edo aurrera eramanez diren proiektuetan. COVID-19ak baldintzatutako agintaldia izan da, eta ideologia politikoetatik harago egon gara, oñatiarren ongizatea bermatzeko. Garai hori izan da benetan elkarrekin lan egin dugun unea. **Bete dituzue hasierako asmoak?** Lan egin dugu, herritarrentzat eta herriarentzat, nahiz eta hori

ikusaraztea ez den askotan erraza izan. Oposizio eraikitzailea izan gara, ados egon garen proposamenak bultzatuz eta desadostasunetan argumentuak azalduz. Adibidez, kiroldegiko obra, Emakumeen Etxearen sorrera eta Natur Eskola berriztatzea hasieratik babestu ditugu. Oñatik benetan aurrera doan herria izan behar du, inor atzean utzi gabe, eta hori izan da gure jomuga hasieratik.

Zer gaitan eragin duzue?

Proposamenak egin ditugu agintaldi osoan, erabaki garrantzitsuenetan, sail guztiak aintzat hartuz. Adibidez: Urrutzuko zabortegia zigilatzea, San Martingo hariztiaren egoera aztertea, zaintzaileen eskubideak eta kontratatzaileen betebeharrak argitzeko bulegoa zabaltzea, herriko emakume ekintzaileei balioa ematea, atletismo pista eta futbol zelai berriak, liburutegiak opor egunetan zabalik egotea, turismo eta merkataritza planak egitea, lehen sektoreari laguntzea, eguneko zentroa aseturuetan zabaltzea eta Euskadi Lagunkoia eskaintzea. Horrez gain, parte hartzeko ordenantzen prestaketan jarrera aktiboa izan dugu, baina hor deigarria eta esanguratsua egin zaigu Udal Gobernuak gerorako utzi izana gardentasuna.

Aintzat hartu ditu Udal Gobernuak?

Ez hasieran, behintzat. Bidea ez da izan EAJk proposatu eta elkarrekin landu, guk proposatu eta denbora batera euren egitea baizik, eurenak izango balira bezala. Hori gertatu da, adibidez, musika eskolaren eta atletismo pistaren proiektuekin. **Nola ikusten duzu Udal Gobernuaren lana?**

Gauza batzuk ondo egin dituzte, eta beste batzuk ez hain ondo. Hori bai, komunikazioan ahalgin handia egin dute eta horretarako bitarteko baliagarriak dituzte; hain zuzen ere, udal komunikabideak. Guk ez dugu hor tokirik izan. Hala ere, badute gabezia bat, agintaldi honetan gertatu dena eta urte

"HAPO BERA DA GURETAKO PLAN ESTRATEGIKOA, HOR JASOTZEN DA ZER ETA NON EGIN DAITEKEEN"

batzuetara ikusiko duguna: ez dute epe ertain-luzerako planik egiten. Inpultsuko erabakiekin gobernatzen dute, gure egitasmo eta proiektuak kopiatzen dituzte. Ez dugu izan agintaldiko planik Udal Gobernuaren alde. Haren proiektuak izan dira soilik: kiroldegi berriko igerilekua eta fitness gelak, Emakumeen Etxea eta Natur Eskola.

Nolakoa da bion arteko harremana? Ona, pertsonen arteko harreman normala. Politikoki egon dira tentsio edo egonezinak, baina, orokorrean, normala da.

Berezaoko kirol ekipamendua, Musika Eskola Olaiturrin kokatzea...

Horiek dira zuen proiektuak?

Herriari begira ditugun proiektu estrategikoak dira, baina baditugu gehiago. Plan estrategikoa HAPO bera da guretako, hor jasotzen delako zein proiektu estrategiko garatuko diren eta non egin daitezkeen. Gazteendako etxebizitzak, industria babestea, komunitate energetikoak sortzea, mendekotasun maila txikia artatzeko eguneko zentroa egotea eta eguneko zentroko plazak gehitzea dira, adibidez, gure proiektuetako batzuk. **Nola ikusten duzu Oñati? Zer behar du? Zer oñatiarrek?**

Geldirik dagoen herria da. Epe motzerako proiektu gutxi batzuk ditu, baina Udalak ez du epe ertain edo luzerako aurreikuspenik. Egun hartzen diren erabakiek eragina izan dezakete etorkizunetakoetan. Ikuspegi hori falta du Oñatik, eta kezkatuta gaude. HAPOren adibidea hor dugu, geldi dago. Etorkizunera begira ito egiten da Udala, geldirik dago. Kiroldegi berriak xurgatu die energia guztia. Oñatik herritarren beharrei egokitutako herri txukuna eta irisgarria behar luke, baina urrun gaude eredu horretatik: aparkalekuak gutxitu eta herriko sarbidea itxi dute, eta bakarra utzi; herriko paretak oso zikinak daude; Kale Zaharra eta plaza ingurukoak lotsagarri daude... Era berean, beharrezkoa ikusten dugu bizikidetzaren ordenantza egitea, agintaldi honetan hainbatetan eskatu duguna.

Ze proposamen dituzue hurrengo aurrekontuetarako?

Lantzen ari gara eragileekin eta herritarrekin batera.

Zerrendaburua izango zara?

Aurrerago jakingo duzue.



Lasterketa zazpi alditan irabazi duen Dabid Garcia irteera puntuan izango den faboritoetako bat da. Argazkian, 2016an. GOIENA

Bi urteko hutsuneak ez du arrastorik utzi, antza

ATLETISMOA Bihar, zapatua, egingo dute Debagoienean parte-hartze handiena izaten duen kirol probetako bat: Antxintxika krosa. Antolatzaileek aitortu dute bi urteko hutsunearen ondoren gehiago kostatzea zaiela lasterketa aurreko lanak egitea

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

"Bai, bi urteko etenaren ondoren, beste urte batzuetan baino gehiago kostatzea zaigu antolaketa lane-tara bueltatzea, baina normala ere bada, eta dagoeneko prest dugu dena. Gainera, jendeak ondo erantzun du", adierazi du aste barruan Antxintxikako kide Iban da Silvak. Izan ere, atzoko eguena izen-emate datuei begiratua emanda, 310 lagunek emana zuten izena; bistan dago jendea kirola egiteko gogoz dagoela eta lasterketak ez duela erakargarritasunik galdu: "Beti egoten da azken ordura zain egoten dena, eguraldiaren zain egoten dena... Eta badirudi zapatuak siku izango dugula; alegia, korrika egiteko eguraldi aproposa izango dugula. Horrenbestez, azken orduan ere animatuko da jendea".

Bada, gaur, egubakoitza, 23:00ak baino lehen bete beharko da izen-emate hori, *kirolprobak.com* webgunean; izan ere, zapatuan bertan ez da izena emateko

aukerarik egongo. Hala, beste urte batzuetan moduan, gehieneko 400 lagunentzako parte-hartze kopurura gerturatuko da Antxintxika krosa.

Aldaketak azken kilometroetan

Antxintxika krosak zenbait aldaketa izango ditu aurtengo edizioan: "Normalean baino apur bat laburragoa izango da; lasterketako helmuga Irala kalean egongo da, eta ez plazan. Eta ez da aldaketa bakarria izango. Azken kilometroan, lanak direla-eta, ibilbidea Zubieta kaletik joan beharrean Boni Laskurain pasealekutik joango da, baina ez dira aldaketa esanguratsuak". Astelehenean *Harmailatik* saioan proba ikusgai (21:30).

HELMUGA PLAZAN BEHARRAN IRALA KALEAN EGONGO DA, ETA EZ DUTE ZUBIETA KALEA GURUTZATUKO

Antxintxika krosa, datuetan

Debagoiendar azkarrenek Antxintxikako kide ziren Oliver Hernandezen eta Mikel Cresporen izena daramaten saria jasoko dute.

Ordutegiak

- 16:30: Aulki gurgildunean eta handbikean dabilzanak.
- 16:45. Patinatzaileak.
- 17:00. Atletak eta urritasun funtzionala dutenak.

Bestelako datuak

- Distantzia: 10 kilometro.
- Irteera: Sorluzen.
- Helmuga: Irala kalean, Bergaran.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

Zumaiako-Aretxaba.

Zap. 16:00. Aita M.

Mutriku-Aloña M.

Zap. 16:30. San M.

Tolosa-Bergara

Zap. 17:00. Berazubi.

Hernani-Mondra

Dom. 16:30. Zubipe.

EMAK. OHOR. ERREG.

Antzuola-Segura

Zap. 16:30. Eztala.

Mondra-Aretxabal.

Dom. 16:30. Ibarra.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-Indaut.

Dom. 16:30. Ibarra.

Urdaneta-Bergara

Dom. 17:00. Loiu.

GOINGOEN MAILA

Antzuola-Segura

Zap. 16:30. Eztala.

Mondra-Aretxab.

Zap. 16:30. Mojategi.

Bergara-Getariako

Dom. 18:00. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Eskoriatza-Laskorain

Zap. 18:30. M. Muñoz.

Mondrate-A. Vitoria

Dom. 17:30. Musako.

GIPUZKOAKO TXAP.

Idiazabal-Ingou C.

Gaur. 22:30. Idiazab.

Mondrate-Martutene

Zap. 16:30. Musakola.

SASKIBALOA

EBA

MU-LBC Cocinas

Dom. 18:30. Iturripe.

EMAK. LEHEN MAILA

Deusto-MU

Zap. 16:00. Bilbo.

GIZ. LEHEN MAILA

MU-Ardoi

Zap. 16:00. Iturripe.



Jaurtiketa librea egiten.

GIZ. GIP. TXAPELKETA

STL Azkune-Soraluce BKE

Gaur. 20:00. Donost.

Mekalki A.-Dolphins

Zap. 18:00. Zubikoa.

ESKUBALOIA

GIZON. EUSKAD. TXAP.

Urduliz-Fagor Arra.

Zapatua. 18:00. Urdul.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

Const. Aloña-Ereintza

Zap. 18:00. Zubikoa.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

Leizaran-Mugarri I.

Zap. 19:00. Andoain.

Soraluce BKE-Urola

Zap. 16:00. Labegarai.

PILOTA

Aretxabaleta: Gaur (17:30) zortzi partidu.

Oñati: Gaur (18:15) bost partidu. Zap. (16:30) hiru partidu.

Antzuola: Gaur (19:00) bi partidu.

Bergara: Gaur (19:15) lau partidu.

Arrasate: Gaur (19:30) hiru partidu. Zap. (18:00) lau partidu.

Madeirako bost lasterketak irabazita itzuli da Malen Osa


MENDIKO LASTERKETAK Salomon etxeko korrikalari oñatiarra Golden Trail Series-etan nabarmendu da

X.U. OÑATI

Malen Osa ezin hobeto amaitu du mendi lasterketen denboraldia, joan den astean Madeiran (Portugal) egin duten Golden Trail Series proban nabarmendu egin da eta. Adinez gaztea denez, Salomon etxeko korrikalariak Open kategorian hartu du esku, eta bertan, bost lasterketan nagusitu da. Horrekin batera, elite mailako sailkapen orokorrean seigarren postuan geratu da oñatiarra.

Munduko onenekin batera

Open kategorian irabazita "oso pozik" geratu da Osa, kontuan hartuta, gainera, sailkapen orokorrean hamar onenen artean sailkatu dela. Golden Trail Series proban mundu mailako mendi lasterkari onenak batu dira, eta lasterketaren formatu berrira –bost lasterketa jarraian– ondo



Osa eta Alonso, helmugan. @JSARAGOSSA

egokitu da Oñatikoa, baita Madeirako tenperatura, hezetasun eta hango aldapetara ere. Oihan Kortazar ere lasterketan egotekoa zen, baina, Sanabriako lasterketan orkatilari min hartu eta gero, elgetarrak nahiago izan du atseden hartu.

Bizirik dauden panpinak protagonista dituzten askotariko ikuskizunak

Euskal Herriko, Kataluniako, Uruguako, Argentinako eta Mexikoko artistak batu dituzte Taun Taun Teatroak eta Bergarako Udalak Helduendako Nazioarteko XVI. Txotxongilo Mostran. Domekara arte, hamar emanaldi egongo dira

Mireia Bikuña Madrid BERGARA

Pandemiak ere ezin izan zuen harizko panpinen haria moztu. 2020koa laburragoa eta berezia izan zen. Bada, bi urtean behin egiten den Bergarako Helduendako Nazioarteko Txotxongilo Mostra distiratsu dator oraingoan. "Gogotsu gaude. Egitarau polita osatu dugu. Betiko osagaiekin eta berrikuntzekin", dio Taun Taun taldeko kide Itxaso Azkaratek. Bi horien adibide dira gaur, egubakoitza, izango direnak: Markeliñeren *Andante* ikuskizun ibiltaria eta Olatz Gorrotxategiren *Mierda de ciudad*. Lehenengoan, memoria historikoaren errepaso egingo du Markeliñek, eta ikuskizunaren elementu nagusia zapata bat izango da. Zapatak eta maskarak erabiliko dituzte kalean barrena egingo dute emanaldian.

Ikuskizun berritzailea izango da bigarrena. Musika zuzenean duen proposamena dakar Gorrotxategik. "Rock-and-rollaren eta punkaren historia kontatzen du. 90eko hamarkadan girotutako emanaldia izango da. Oso berezia", dio Azkaratek.

Kalean eta aretoan

Zapatua eta domeka izango dira atzerritik datozen taldeen lanak ikusteko egunak. Horieta bi, *Libelul.la* eta *The strambotik kabaret*, kalean egingo dituzte, bi egunetan. Toti Toronell aktorea izango da lehenengoan protagonista. Zirku txiki bat muntatuko du, karpa txiki batean. Eta hark egingo ditu paper guztiak. Ikuskizunaren txikitakunak eragina izango du ikusle kopuruan: bakoitzean 50 pertsona onartuko dituzte. Bigarrenean,

dantzariak izango dira protagonistak. "Emanaldi magikoa egingo dute globoekin".

Bestalde, Uruguako Coriolis Konpainiak Seminarixoa egingo du *Pasos largos* emanaldia. Paperezko hiru soinekorekin, hiru istorio kontatuko ditu Maru Fernandez protagonistak.

Zinema emanaldia

Nazioarteko Mostraren azken emanaldia Mexikoko eta Kataluniako kideak dituen Zero En Conducta taldeak egingo du: *Trashhh* delakoa. Izar izan gura duen zabor-poltsa txiki baten pasadizoak kontatuko dituzte 30 minutu iraungo duen emanakizunean. Azkenik, talde berak egindako *Anima, animae, animam* filma ikusi ahal izango da. Zapatuko edo domekako sarrerekin, debalde izango da.



Markeliñeren *Andante* lana. MARKELIÑE



Mierda de ciudad, Olatz Gorrotxategirena. o.g.



Toti Toronell *Libelul.la* zirku txikiarekin. TOTI TORONELL



The strambotik kabaret-eko artistak, globoekin. RAUXA



Maru Fernandez, *Pasos largos* ikuskizunean. CORIOLIS



Anima, animae, animan pelikularen une bat. ZERO EN CONDUCTA

'Tinglaur' instalazioa

Txotxongiloen Mostrak irauten duen bitartean, gune berezi bat egongo da Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan: Taun Taun taldeak sortutako *Tinglaur*. Naturan aurkitutako altxorrekin eta etxean egunero erabiltzen diren gauzekin harizko panpinak egin dituzte, manipulazioa sorrarazteko asmoz. Hala, material berrerabiltzarekin egindako txotxongiloekin jolasteko aukera dute bisitariek. Ukitu, jolastu eta sormena lantzeko, alegia.

Egitaraua, egunez egun

Sarrerak salgai daude *Seminarixoa.eus* atarian.

Egubakoitza

- 18:00-19:00 Taun Taunen *Tinglaur*, osoko bilkuren aretoan.
- 19:00 Markeliñeren *Andante*, Seminarixoko karpan.
- 20:00 Olatz Gorrotxategiren *Mierda de ciudad*, Seminarixoa.

Zapatua

- 13:00 Toti Toronellek *Libelul.la*, Munibe plazan.
- 18:00-19:00 Taun Taunen *Tinglaur*, osoko bilkuren aretoan.
- 19:00 Rauxaren *The strambotik kabaret*, San Martin plazan.
- 20:00 Coriolis Konpainiaren *Pasos largos*, Seminarixoa.

Domeka

- 11:00-12:30 eta 17:00-19:00 Taun Taunen *Tinglaur*, osoko bilkuren aretoan.
- 12:30 Toti Toronellen *Libelul.la*, Munibe plazan.
- 13:30 Rauxa Konpainiaren *The strambotik kabaret*, San Martin plazan.
- 20:00 Zero En Conductaren *Trashhh*, Seminarixoa, eta ostean, *Anima, animae, animam* filma.



Eyharts proiektuaren –Alayn Carazo eta Jokin Guridi– ikus-entzunezko berezia.



Letagin taldearen rock-and-roll grinatsuak itxi zuen kontzertua, eta aho zapore ona utzi.



Punk-rock "lotsagabea", Arrasateko 112 taldearen eskutik.



Inguma taldeko Ibon, ikus-entzuleekin elkarrengaiten.

Eman eta goza, hori ikuskizuna

Jendetza erakarri duen Danbakaren bigarren emanaldia gozamen handia izan da Seminarixoko ikus-entzule eta oholza gaineko protagonistendako



**HASIER
LARREA**

Bi aste lehenago piztutako sua bero mantentzen zen Bergarako San Martin plazan joan den bariku iluntzean. Uda giro sentsazioak zapore tentagarria jarri zion Danbaka musika lehiaketaren bigarren mokaduari, bailarako hainbat herritatik bertarututako ikus-entzuleek berehalakoan harrapatzen jakin zutena.

Chill outean DJ bRgSS-k jarritako estiloaren ildotik, mu-

sika elektronikotik, jo zuen kontzertuaren irekieran Eyharts-ek. Beharbada, Danbakako par- taide guztien artean apurtzai- leena izango da bikotearen proposamena. Soinuaz harago doa euren ikuskizuna, aldi berean irudi abstraktuz osatutako bideoak proiektatzen baitituzte sintetizadoreen erritmora. Bidaia sensoriala da, finean, talde ber- gararrak lau mahaitan sakaba- natutako makinaren bidez sortzen duena, eta gai dena ikus-entzulea bizitza errearekin zeriku- sirik ez duen imajinario batean murgiltzeko.

Barruak husteru

Jasotakoa digeritzen harrapatu zuen publikoa Ingumaren za- plaztekoak. Barruak husteru irten ziren, oi! taldeek zainetan daramaten legez. Abeslariaren energiak gidatuta, doinu itsas- korrez jositako kantuek eskaini zituen oñatiar boskoteak, eta jakin zuen mezuak transmititzen ere, *Euskal estatu nafarra eta Desobediencia* oihukatzerakoan, esaterako. Kaskamotz mugimen- duak oraindik jarraitzaile su- tsuak dituela argi ikusi zen, gazte ugari hurreratu baitziren taldearen abestiak abestera.

Gozokia partekatzen

112 taldeari zegokion jarraian gozokia partekatzea. Punk-roc- karen sintonian oraingoan, gor- dintasunaren alde agertu ziren hasi eta buka. Igarri zen ile- bilorik gabeko esaldiak, dotorezia baino eraginkortasun handia- gokoak, nabarmentzeko konpo- satzen dituztela kantuek. Euren buruari barre egitetik abiatu ziren gizartearen kontraesanak biluztera, modu simple eta na- turalean. Baxuak eta bateriak agindu eta gitarrak modu soti- lagoan astintzea da euren estiloa, hitza izan dadin entzulea katea- tzen duen elementua.

Hasieratik hozka

Eszenatokia zapaltzearekin bat hasi ziren hozka Letaginekoak. Edozein aretok esku zabalik hartuko lituzke oñatiarrak, be- netan sinesgarria baita euren zuzenekoa. Ordurako irakiten

zeuden lekukoak, gitarristen punteatze altu eta *riff* grabeek, abeslariaren tonu aukera abe- ratsaren eta, oro har, talde mo- duan erakutsi zuten sendotasu- nak gaindituta. Musikariek ere oso gustura jardun zuten, batez ere, bukaeran, onena ematen ari ziren momentuan.

Hirugarren abentura, 11n

Halaxe iritsi zen aurtengo Dan- baka bigarren geltokira. Lehe- nengo kontzertuan pilatutako esperientzia lagun, bailaran sortzaile finak daudela baieztatu du berriz, eta, agian, garran- tzitsuena, euren aurrera egiteko jarraitzaile eta langile sare han- dia dagoela.

Seminarixoko abenturak hi- rugarren atala azaroaren 11n izango du, beste lau musika proposamenekin; Aiert, Broken Legacy, Sukena eta Balarrasa izango dira protagonistak.

**BI ASTE LEHENAGO
PIZTUTAKO SUA BERO
MANTENTZEN ZEN
SAN MARTIN PLAZAN
BIGARRENEAN**

**BAILARAN SORTZAILE
FINAK DAUDELA
BAIEZTATU DU BERRIZ,
ETA JARRAITZAILE
SARE HANDIA BADELA**



DJ bRgSS –Iban Borgas aretxabaletarra–, chill out gunean.



Atsedena-gunea, kontzertutik kontzertura artean.




Seminarixoa aretoan 300 bat lagun elkartu ziren egubakoitzean; agertokian, Letagin. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

**Eyharts** | Bergara

Zuzeneko berritzaileek Danbakan tokia badutela argi utzi zuten. Irudien eta soinuaren arteko efektu bitxiak txundituta laga zuten publikoa; are gehiago, jakinda uanean bertan sortzen ari zirela. Ondo kalkulatu eta taularatutako inprobisazioa.

**112** | Arrasate

Dead Kennedysen antzera, gutxirekin asko esateko gai izan ziren, apaingarririk gabe baina ideia burutsuekin. Ezeren aurretik, zirikatzaile. Badute konposizioak gehixeago orrazteko marjina, kantu laburrei bukaera landuagoak falta izan zitzaizkien eta.

**Inguma** | Oñati

Ordu erdi jo arren, izerditan amaitu zuten. Euren jarrera sutuak, batez ere, abeslariarenak, lagundu zien ikusleei berotan sartzen. Melodia eta koru alaiak 90eko hamarkadatik aurrerako kaskamotz mugimenduko talde mitikoak oroitarazi zituzten.

**Letagin** | Oñati

Indar erakustaldia egin zuten, musika tresnen potentzia eta abeslariaren gaitasuna modu borobilean baliatuta. Esperientziadun musikari finak eta goitik beherako taldea, rockaren erregistro suabe eta gogorrek maisuki maneiatzen dituen.

Aretoan jasotako iritziak

KRISTINA MARKINA EPAIMAHAIKO KIDEA

"Oso ondo aritu dira lau taldeak. Zaila izango da onenak aukeratzea. Bestetik, oso pozik gaude Danbakarekin, areto barruan zein kanpoan sortzen den giroarekin, jendea gustura ikustearekin. Gozatu dezala jendeak!".

IBAN BORGAS CHILL OUT GUNEKO DJ-A

"Oso gustura aritu gara, oso giro ona sortu da eta pozik geratu gara. Esango nuke jendea ere gustura egon dela. Laburra, baina ederra. Halakoak gehiago egin beharko lirake. Seminarixoa bera sekulako agertokia da, akustika bikainekoa".

OXEL ARRIARAN IKUS-ENTZULEA ETA KONTRALDEKO KIDEA

"Zalantza izan genuen Danbakan izena eman edo ez. Eta, orain, ikusita zer den, pena apur batekin geratu naiz. Gustatu zaizkit kontzertuak, taldeetako batzuk lagunak ditut, gurekin jotzen du musikarietako batek...".

ANDREA GONZALEZ IKUS-ENTZULEA

"Lehen aldia zen Danbakara etortzen nintzena, eta bikain egon da. Eyharts ez neukan ikusita eta brutala iruditu zait. Aretotik kanpo, chill out gunea ere bikaina: herritarrak eta ondoko herrikoak hemen ikustea, giro onekin, oso polita".

HURRENGO KONTZERTUA

Azaroak 11, egubakoitza. 21:30. Bergarako Seminarixoa.

- Aiert
- Broken Legacy
- Sukena
- Balarrasa


Publikoaren Sariaren sailkapena

- KIIMAK**
Antzuola
Botoen %39,8
- AIERT**
Oñati
Botoen %17,8
- KTARSIA**
Bergara
Botoen %11,9
- THE CLAYTON**
Aramaio
Botoen %9,9
- 112**
Arrasate
Botoen %6,7
- LEMAK**
Bergara-Antzuola
Botoen %6,7
- JASAN**
Aretxabaleta-Eskoriatza
Botoen %4,1
- INGUMA**
Oñati-Bergara
Botoen %1,3
- ETXEPE**
Arrasate
Botoen %0,7
- EYHARTS**
Bergara
Botoen %0,7
- ARRAGOA**
Bergara
Botoen %0,3
- BELARRASA**
Aramaio-Eskoriatza
Botoen %0,3
- ERROMINTXELAK**
Arrasate
Botoen %0,0
- BROCKEN LEGACY**
Oñati
Botoen %0,0
- ILUMINATIZ**
Aretxabaleta-Otxandio
Botoen %0,0
- ISLABAT**
Bergara-Elgoibar
Botoen %0,0
- LETAGIN**
Oñati
Botoen %0,0
- ORHI**
Bergara
Botoen %0,0
- SINDY BERBENAS**
Arrasate
Botoen %0,0
- SUKENA**
Oñati
Botoen %0,0


BOTOA EMATEKO

Danbaka.eus webgunean edo Goiena.eus webgunearen Danbaka izeneko kanalean eman daiteke botoa, **2023ko urtarrilaren 10era bitartean.**

ESKER ONA



Margarita Uribetxebarria Mondragon
 'Margari Eperra'
 Jose Aranaren alarguna



2022ko urriaren 28an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko azaroaren 4an.

ESKER ONA



Rafael Alcelay Zubia



2022ko urriaren 25ean hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, azaroaren 5ean, 19:00etan, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurekin eskerririk asko.

Oñatin, 2022ko azaroaren 4an.

URTEURRENA

Jesus Odriozola Odriozola



2021eko urriaren 28an hil zen, 90 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 5ean, 19:00etan, Oñatiko agustindarren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2022ko azaroaren 4an.

Oroilore BADESLEA

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerririk beroenak guran izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
 Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



ZORION AGURRAK

 OÑATI Irati Azkona Dorado Azaroaren 9an, 2 urte. Zorionak, maitia. Izugarri maite zaitugu.	 OÑATI Ganix Erostarbe Aramburu Azaroaren 9an, 3 urte. Zorionak, Muxu asko, batez ere Urdaxen partetik.	 OÑATI Chloe Ochotorena Azaroaren 8an, 7 urte. Zorionak, printzesatxo! Etxeko partetik muxu asko.	 ARRASATE Markel Mondragon Arrozpide Azaroaren 7an, 6 urte. Zorionak, txapelidun! Muxu erraldoi bat!
 BERGARA Manex Goitia Pagaldai Azaroaren 7an, 9 urte. Zorionak! Ondo pasa zure egunian. Muxu potolo bat!	 BERGARA Eñaut Lete Cobo Azaroaren 6an, 2 urte. Zorionak, artista! Ondo pasa zure eguna. Muxu potolo bat danon partetik.	 ANTZUOLA Nagore Sanchez Azaroaren 6an, 10 urte. Egund polita pasatu. Muxu handi bat eta zorionak!	 ANTZUOLA Ekaitz Alonso Gonzalez Azaroaren 6an, 7 urte. Zorionak! Primeran pasau zure eguna. 1000 muxu!
 ARETXABALETA Luka Iturbe Azcoitia Azaroaren 5ean, 7 urte. Zorionak, bihotza! Muxu handi bat etxeko guztion partetik!	 ARRASATE Manex Barbero Hernandez Azaroaren 5ean, urtebete. Zorionak! Ondo pasa lehenengo urtebetetzea!	 BERGARA Naia Ibarzabal Aranzabal Azaroaren 5ean, 10 urte. Zorionak, Naia, ondo pasa eguna!	 ARRASATE Manex Arizmendi Zabaleta Azaroaren 5an, 3 urte. Zorionak, Manex! Ondo ospatu eguna!
 OÑATI Markel Perez Romarategabala Azaroaren 5ean, 7 urte. Zorionak! Egund polita pasau. Ask maitte zaitugu!	 ARETXABALETA Malen Iñurategi Alberdi Azaroaren 3an, 7 urte. Mila mila zorion! Topera ospatuko dou.	 ESKORIATZA Aner Larrinaga Beitia Azaroaren 3an, 7 urte. Etxeko guztien partetik, ederto ospatu zure eguna.	 ARRASATE Nahia Domingos Hilaren 2an, 10 urte. Zorionak! Muxu handi bat, bereziki Aimirrena.

BERRI-ZAKUA



Mus txapelidunak
 Badira aste batzuk Aretxabaletan sanmigelak ospatu zituztela, eta, egindako ekintzen artean, mus txapelketa jokatu zuten Orly tabernan. Bada, irudiko bikoteak –txapelarekin daude– irabazi zuen txapelketa: Regino Merino –ezkerrean– eta Lazaro Alvarez –eskuinean–. Argazkian daude, era berean, Ainhoa Cabero zinegotzia eta Igor Ezkibel, Orly tabernako ugazaba.

50 urte ezkontuta

Jose Mari Lezeta antzuolarra eta Arantxa Urzelai oñatiarra 1972ko azaroaren 4an ezkondu ziren, Arantzazuko basilikan. Hortaz, gaur, egubakoitza, urrezko ezteiak bete dituzte. 50 urte elkarrekin ezkontuta. Bada, ospakizuna bihar egingo dute. Etxekoez inguratuta bazkari ederra egingo dute Oñatiko Zumeltzegi jatetxean. "Zorionak, bikote! Segi horrela beste 50 urtez. Ederto ospatuko dugu elkarrekin. Segi zoriontsu izaten eta gu zoriontsu egiten. Musu eta besarkada bana, etxeko guztion partetik. Maite zaituztegu!".



 OÑATI Ane Arregi Orueta Azaroaren 2an, 9 urte. Zorionak, politt hori! Ondo pasau zure eguna.	 ARRASATE Beñat Lezamiz Agirre Urriaren 31n. Zorionak, Beñat, zure lehen urtebetetzean. Maite zaitugu.	 OÑATI Luka eta Ibai Arbelaitz Urriaren 28an, 6 urte. Zorionak, maitiak! Ondo pasau zuen urtebetetzea!	 BERGARA Aida Roman Martinez Urriaren 26an, 42 urte. Amatzxo, zorionak! Haizea eta Helene.
 ARRASATE Txaro Azkarate Zabarte Urriaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, tia Txaro! Familiako guztien partetik.	 ARRASATE Markel Nin Ugalde Urriaren 28an, 7 urte. Zorion pila-pila bat Markeltxo! Muxu handi bat etxeko txikinari!	 ARRASATE Aimar Souto Martin Urriaren 24an, 2 urtebete. Zorionak denon partetik!	 ESKORIATZA Enaitz Ibañez Ugartetxe Azaroaren 4an, 3 urte. Zorionak, Enaitz! Amama Ines, aitita Pedro, tia Naiara eta tio Andoni

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 4

ESKORIATZA Hostoak batu eta eskulanak egin

Bi txanda: 16:45ean, HHko umeak; eta 18:00etan, LHko umeak. *Ludotekan.*

OÑATI 'Gipuzkoako hizkuntza-aniztasuna eta euskara; erronka berriak' hitzaldia

Belen Urangak egingo du berba, *Zubi bat euskaratik* hitzaldi zikloaren baitan. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ARRASATE Batukada ikastaroa

Odei Astibia irakaslearekin. Izena emateko: *sanbamaña@gmail.com*. *Kulturolan, 18:00etan.*

ELGETA Mahai-futbol txapelketa

18:30ean, 12-16 urte bitartekoendako; eta 19:30ean, 16 urtetik gorakoendako. Izena, egunean bertan, lau eurotan. *Ozkarbi elkartean.*

ARRASATE 'Arrasate Musikal, 50 urte' erakusketa

Argazki zaharrak eta bestelakoak ikusgai, hilaren 25era arte. Gaur egingo dute inaugurazio ekitaldia. *Kulturaten, 18:30ean.*

BERGARA 'Andante' antzezlan

Markeliñe taldearen lana, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen 16. Mostraren baitan. *Seminarixoko karpan, 19:00etan.*

BERGARA 'Mierda de ciudad' antzezlan

Solobe Art Konpainiaren lana, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen 16. Mostraren baitan. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

ZAPATUA 5

OÑATI Oñatiko film laburren rallya

Hamahirugarrena egingo dute, 08:00etan, erabili beharreko objektuak eta lekuak zeintzuk diren esanda. Ilunkara erakutsiko dute lan guztiak. *Oñatin.*

OÑATI Mendi orientazioan sakontzeko ikastaroa

Oñatiko Emakumeen Jabetze Eskolaren baitan, Patri Espinarrekin. Gaur, bigarren saioa egingo dute. *Euskaldun Berria gelan, 09:30ean.*

OÑATI Makrame ikastaroa liho-zuntzekin

24 euro pertsonako, material guztia eta euskarazko makrame-gida barne. Izenak: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*. *Parketxean, 10:30ean.*

BERGARA Wolfram Encounterra

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldien baitako egitarauaren barnean antolatutako ekitaldia. *Zabalotegin, 11:00etan.*

ARRASATE Musakolako Gazte Eguna

11:00etan, puzgarriak, aurpegi margotzea eta jolasak; 13:30ean, 14 urtetik beherakoendako bazkaria, debalde -izena, egunean bertan-; 16:00etatik aurrera, jolas libreak, aurpegiak margotzea; eta 17:00etatik 19:00etara, puzgarriak. *Musakolan.*

BERGARA 'Libelul.la' antzezlan

Toti Toronellen lana, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen 16. Mostraren baitan. *Munibe plazan, 13:00etatik 18:00etara.*

OÑATI Filatelia erakusketa: gaur, azken eguna

Trenak, Loreak, Emakumeak filatelian eta *Maila-art* gaiak erakutsi dituzte. *Kultura etxean, 18:00etan.*

BERGARA 'The strambotik kabaret' antzezlan

Rauxa Konpainiaren lana, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen 16. Mostraren baitan. *San Martin plazan, 19:00etan.*

ARRASATE 'Hondamendia' antzezlan

Harkaitz Canoren testuan oinarrituta, pandemia eta Zaldibarko abortegiko drama ditu ardatz. Ander Lipus eta Maite Larburu oholtzan. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

BERGARA 'Pasos largos' antzezlan

Cia Corioliseren lana, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen 16. Mostraren baitan. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

DOMEKA 6

LEINTZ GATZAGA Gatz Bidera ibilaldia

Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako Euskaraldiko Batzordeak elkarrekin antolatutakoa ekintza. Talde argazkia, 12:30ean, Leintz Gatzagan. Aretxabaletako irteera, 10:00etan, eta Eskoriatzakoa, 10:30ean. *San Migel plazan.*

BERGARA 'Libelul.la' antzezlan

Toti Toronellen lana, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen 16. Mostraren baitan. *Munibe plazan, 12:30ean.*

BERGARA Txistulari bandaren emanaldia

Irekia. *Osoko bilkura aretoan, 13:00etan.*

BERGARA 'The strambotik kabaret' antzezlan

Rauxa Konpainiaren lana, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen 16. Mostraren baitan. *San Martin plazan, 13:30ean.*

ESKORIATZA 'Luze edo motz' bakarrizketa

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoristekin. Sarrerak, bost euro. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

OÑATI Ganbara abesbatza eta Hots abesbatza

Aita Madinaren heriotzaren 50. urteurrenaren ekitaldien baitan. Sarrerak, bost euro. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

BERGARA 'Trashhh' antzezlan

Zero En Conducta taldearen lana, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen 16. Mostraren baitan. Ostean, *Anima, animae, animan* filma. *Seminarixoan, 20:00etan.*



AXUTI KOLEKTIBOA

ARRASATE 'Hondamendia' antzezlan

Harkaitz Canoren testuan oinarrituta, pandemia eta Zaldibarko abortegiko drama ditu ardatz. Ander Lipus, Maite Larburu eta Manex Fusch dira protagonistetako batzuk. *Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean*

ASTELEHENA 7

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.*

OÑATI Yoga, emakumeendako

Jabetze Eskolaren baitan, Itziar Perez Alkortarekin. *Zubikoan, 17:30ean.*

ARAMAIO Irakurle Klub Feminista

Agota Kristof idazlearen *Analfabetoa idazle* liburua aztertzeko elkartuko dira. *KZgunearren gelan, 18:00etan.*

ARETXABALETA Erregularizazioa berbagai

Aretxabaletar guztientzat erregularizazioa. Ez da karitatea, justizia da! Ilolearekin egingo du berba Luciana Alfaro feministak. *Udaletxe zaharrea, 18:30ean.*

MARTITZENA 8

OÑATI Eskola Feminista Iraunkorra

Jabetze Eskolaren baitan, Emagineko kide Maider Avaristorekin. *Liburutegian, 18:00etan.*

ARRASATE 'Gure musikariak munduak zehar' hitzaldia

Arrasate Musikaleko ikasle eta irakasle izandako Alberto Urretxok, Unai Urretxok eta Mikel Arkauzek egingo dute berba. *Kulturaten, 18:30ean.*

OÑATI Alaine Agirreren hitzaldia

Emakumeen sormenaz eta Agirreren *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* liburuz berba egingo dute. *Kultura etxean, 18:30ean.*

ARRASATE '918 gau' pelikula

Arantza Santestebanen filma, euskaraz, martitzenetako emanaldian. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

EGUAZTENA 9

BERGARA Kafe Konpon

Etzeko tresna txikiak konpontzeko. *San Joxepen, 16:00etan.*

ESKORIATZA Ginkana

16:45ean, HHko umeak, eta 18:00etan, LHkoak. Azken horiek, Luis Ezeizako kantxan. *Ludotekan.*



AZKEN BERBA

MARIA AGIRRE

Urkulu

Irudi batzuk ikusi ditut Urkulu urtegiaren erakusgarri direnak. Esan daiteke Debagoieneko birika berde gisa ezaguna dena ez dagoela bere onenean; ur mailak dezente egin du behera eta lehorraren marroia paisaia margotuz doa. Harriak urpetik ageri dira, garai bateko bidexka eta baserrien lekuko.

Demografiaren hazkunde etengabearen zegoen bailararen ur beharrari erantzuteko, hamarren bat baserri hustu ziren 70eko hamarkadan. Hau da, hainbat familiak etxea utzi behar izan zuten urtegia eraiki ahal izateko. Urkulu baserrian jaiotako Andoni Uribeetxebarriak ETBko *Escapadas* saioan kontatzen zuenez, kasu batzuetan, erraztasun handirik eman gabe alde egin behar izan zuten, eta, emozionalki, gogorra izan zen.

Urkuluri buruz liburuak idatzi dira, naturaren ikuspuntutik ikerketa lanak egin, urpean geratutako baserrien katalogoa ere bai... Baina komunitate handi baten mesedetan familia gutxi batzuek egindako ahalegina, oker ez banago, aitorpen ofizialik gabe geratu da urteetan. Oraindik garaiz egon gaitzke

GOIENA OKM GIDA

"Zapata-konponketekin soilik itxi egin beharko nuke"

MANUEL CRUZ TAKOI SARRAILAGINTZA

Sarrailagintza eta zapata-konponketak haren ogibideak badira ere, dantza latinoen irakaslea da Cruz; asteburuetan, ahal duenean, bizikletan ibiltzera joaten da

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE

Extremaduran jaioa da Manuel Cruz, baina 8 urte zituela Ermura joan zen bizi izatera, familiarekin. Kanpoan lanean aritu ostean, ezkondu, eta dagoeneko 40 urte daramatza Arrasaten; horietatik 27, haren negozio Takoi Sarrailagintzan. Zapata konponketekin hasi zen, eta duela 10 urtetik sarrailagintzarekin uztartzen du.

Zer dela-eta zabaldu zenuen denda?

Costa Bravan egon nintzen lanean zortzi urtez. Ezkondu, eta hona etorri nintzen. Aitagarrebak irakatsi zidan zapatagile ogibidea Aterpen lanean ari nintzen bitartean. Bergarako Ehunetan ere ez zidaten kontratu finkorik egiten, eta konponketa denda jartzea erabaki nuen. Gero, giltzen kopiak egiten hasi nintzen. Ondoren, sarrailak jartzen hasi nintzen. Logroño, Zaragozan eta Madrilan sarrailagintza ikastaroak egin eta aseguru-etxe batentzat lanean hasi nintzen 24 orduko larrialdi zerbitzua eskainiz, nire negozioaz gain.

Zer duzu nahiago, sarrailagintza ala zapatagintza?

Biak. Sarrailagintzan beti zerbait ezberdina dago egiteko. Giltzen eta sarrailen munduan sartu nintzenez, gaur egun ba-



Manuel Cruz, giltza baten kopia egiten, Kalealdea kaleko 2. atarteko dendan. I.A.A.

Atea zabaldu aurretik, egiaztatu

"Ezin ditut atea besterik gabe zabaldu. Aseguru bidez noanean, aplikazioak baieztatzen dit bezeroa nor den. Bestela, edozein zalantza badut, bizilagunari txirrina jotzen diot, eta horrela egiaztatzen dut pertsona hori hor bizi den. Bestela, nortasun agiri zenbakia ematen didate, baimena sinatzen didate, eta, horrela, arazoren bat badago, polizia irakatsi diezaioke. Gauetz bada, beti deitzen diot polizia, deitzen duenaren bizitokia egiaztatzeko".

daukat lana. Zapata-konponketekin soilik itxi egin beharko nuke.

Zein dira sarraila egokiak lapurretak ekiditeko?

Urrutiko aginteekin dabiltzan sarraila ikusezin asko ari gara jartzen. Lapurrak kanpoan dagoena ikusten du, baina barruko ez. Kanpoko hautsi arren, ezin du sartu. Bi sarraila dituzten etxeetan ere lapurreta gutxi ikusi ditugu.

Ohiko arazoak zein izaten dira?

Giltzak barruan uztea. Askotan, gainera, zerbait piztuta uzten dute sukaldean. Lehenetsuna ematen zaie halako egoerei.

Lanetik gehien gustatzen zaizuna?

Bezeroekin dudaren harremana. Oso berritsua naiz, eta jendearekin dudaren tratua oso ona da. Lanean arduratsua izatean saiatzen naiz, eta bezeroak ondo tratatzen. Arazoren bat badago, beti konpontzen saiatzen naiz.

Ze zaletasun dituzu?

Dantzaria naiz. Dantza latinoko eskolak ematen ditut. Asteburuetan, ahal dudanean, bizikletan ibiltzen naiz. Urtean zehar ere astebetexu bat hartzen dut ibilbide luzeren bat egiteko. Donejakue bideko zortzi ibilbide egin ditut; baita Ruta de la Plata ere.

Esaten da euskaldunak dantzarako ordan nahiko geldiak garela.

Askok aldatu da hori, jendeak asko dantzatzen du. Geroz eta latino gehiago daude, eta asko nahastu gara. Tabernetan, lehen, bachatarik edo saltsarik ez zen entzuten. Orain, ordea, edozein tabernetan jartzen dute.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

'BIKTIMEN AHOTSAK'

21:00 ETA 23:00

AZAROAK 7: FRANCISCO ASTUY

AZAROAK 8: IÑAKI AGIRIANO

AZAROAK 9: MATILDE MARTIN

AZAROAK 10: ALAITZ PEREZ DE ARENAZA

IKUS-ENTZUNEZKO SORTA

goiena

Zu hemen zaude.

